



ARGIA

“Euskararentzat BAM gunea estrategikoa da Ipar Euskal Herria irabazteko”

Eneko Gorri

Baiona-Angelu-Miarritzeko
euskara teknikaria



» **PAOLINA MERCEDES:** EKUADORKO AGINTARIA, KITXUA ETA FEMINISTA

» **ARGIA.EUS-EK 20 URTE:** ALDAKETAK DATOZ WEBGUNEAN

» **ANDEKA JURADO:** BERTXIOTZEAGATIK ESPETXERA SARTU DEZAKETEN LEHEN HERRITARRA





EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Laboral Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

Bada beste modu bat.



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Nola Sarkozyz Kadafi hilarazi zuen

IRITZIAK

- 17 Aiala Elorrieta
- 18 Iñaki Martinez de Luna
- 19 Mikel Irizar Edu Zelaia
- 20 Bea Salaberri



Hogei urte bete ditu ARGIAren webguneak. Kazetaritza asko aldatu da denbora horretan, eta ezin daiteke ulertu internetik gabe. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: MIQUEL MISSÉ
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

SAKONEAN

- 12 | Paolina Vercoutere (Ekuador): "Ez diogu kolonizatu izateari utziko hezkuntza sistema irauli artean" / Miel A. Elustondo
- 22 | ARGIA.eus-ek 20 urte: Internet, kazetaritza proiektua indartzeko gakoa / Lander Arbelaitz Mitxelena
- 28 | Agur eta ohore adierazpen askatasuna / Xier Lopez
- 30 | Roger Español: "Gomazko balak mundu guztiari debekatzea nahi dut, ez soilik Mossoei eta Katalunian" / David Bou
- 33 | Eneko Gorri: "Lapurdin hirigintza ereduak hizkuntza politikak baino eragin handiagoa du" / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Rruccula, DJ-a: "Abesti bat egitea munduko musika guztiak elkartzea da" / Kepa Matxain
- 46 | Arte iruzkina: Alejandro Tapia / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagora, S.A.L.

Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estibx Eizaguirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Xier Lopez, Estibx Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorazuze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametz interaktiboa, S.L.

Interneten: www.argia.eus

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel.: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus

ARGIA KIDETZA:

Harpidetza lotuta egon beharrean, kidetza ARGIAren proiektua indartzera dago lotuta. Kideek, egokitzen duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larri, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



OLATUKOOP EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

ARTEFIEL

PANORAMA

Ez dugu ikusi nahi

Zergatik egiten dugu geure Black Friday, Cyber Monday, Halloween eta kontsumoa handitzeko AEBetatik datozkigun moda berri oro? Zergatik guk hartzen dugu haiena eta ez alderantziz? Galdera erretorikoa da, bai. Munduan buruko gehien kontsumitzen duen gizartetik datoz ekimenak eta mugarik gabeko kontsumoa behar, ranking horretan lehena izaten jarraitzeko. Eta hala, Euskal Herria ere salmenta-gune duten multinazionalen interesek bultzatuta, haien menpeko hedabide publiko eta pribatuak ezinbesteko laguntzari esker, marketing kanpaina izugarria sufritu izan dugu egunotan. Erostea. Jakinarazteko belztutako ostiral batean erostea zer ona den. Zernahi dela ere. Eta, momentuz, funtzionatu duela dirudi. Nahiago baitugu Thaiandian egindako praka polit hori 2 euro merkeago erostea, etengabeko kontsumoren kalteei begietara begiratzea baino.

Argazkia: Olmo Calvo - Testua: Axier Lopez



BLACK
FRIDAY

HASTA
-50%

TÚ ELIGES
www.cortefiel.com
www.pedrodelhierro.com
#EleganciaNatural



Bilboko portutik Saudi Arabiara igorritako armei buruz mozioa aurkeztu dute EH Bilduk eta Podemosek Eusko Legebiltzarrean.



“Uneotan Jaurilaritzaren ordezkaritza bat Saudi Arabian dago, negozio berriak lantzen. Etikoa al da?”

Iñigo Martinez, Elkarrekin-Podemos



“Jaurilaritza ez da bere legea betetzen ari, honek baitio ez duela kolaboratuko armak ekoizten/finantzatzen dituzten enprekin”

Mikel Otero, EH Bildu



“Harremanak eten behar badira Saudi Arabiarekin, zergatik ez Venezuelarekin? Iranekin? Armen salmenta/esportazio eskumena Espainiako Gobernuari dagokio”

Xabier Agirre, EAJ



“Harreman ekonomikoak lotuta daude herrialde horietako herritarrek, ez gobernuekin”

Txarli Prieto, PSE



Laino erradioaktiboak Europa zeharkatu du

Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Egunak aurrera joan ahala, nabarmenagoa da irail amaieraz geroztik Europa zeharkatu duen laino erradioaktiboari buruzko informazio falta. Errusiatik iritsi dena ziurtzat jota, herritarren osasuna zaintzeko ardura duten erakunde nagusienganako kritikak areagotu dira.

Azaroaren 21ean zabaldu dute agentziek: “Rosguidromet meteorologia zerbitzuak esan du Ural mendietan neurtu dutela ohikoa baino 1.000 bider handiagoa den kutsadura, isotopo erradioaktibo batek eraginda. Istripuren bat gertatu dela iradokiz Errusiak eskaintzen duen lehenbiziko datua da”.

Oraindik ez Errusiak eta ez Kazakhstane onartu ez duten arren inolako istripurik

bere instalazioetan, adituen begiak gero eta gehiago Txeliabinsk eskualdeko Maiak konplexu nuklear erraldoiari (argazkian) begira daude, Rosguidrometek kutsadura handiena hortik 30 kilometrora ezarritako estazio meteorologiko batean aurkitu duelako. Maiak korporazioak Txeliabinsk enregai nuklear erabiliak tratatu eta gai erradioaktibo berriak sortzen ditu, ikerketarako bezala medikuntzarako.

1957an Maiak faktorian gertatu zen historiako istripu nuklear larriena. Hozte sistemetako batek eztanda egin eta bildutako erradioaktibitatearen erdia baino gehiago (Txernobylgo hondamendian baino gehiago) atmosferara irteten zen. 1.000 kilometro koadro kutsatu ziren eta 272.000 pertsonak jasan zituzten erradiazioaren ondorioak. 60 urte geroago, zerbait gertatu da berriro Txeliabinsk.

“Gurasoak espetxean dituzten umeei haurtzaro zati bat lapurtzen zaie”

IÑAKI BARRUTI, HAUR PSIKOLOGOA

Gurasoak preso dituzten haurren inguruko dossierra osatu dute. Egileetako bat da Barruti: “Gurasoak espetxean dituzten umeei haurtzaro zati bat lapurtzen zaie, aurretiazko heltze bat emanaz. Bisiten aurretik haurrek antsietate egoerak jasaten dituzte”. Bidaian zehar pairatu ohi duten “estresa” ere azpimarratu du. “Espetxean jaiotzen diren haurren kasuan, 3 urte-ekin amagandik banantzeak haurren izaera osatzeko prozesua kaltetzen du”. **2017-11-21**



FAUNA PUBLIKOA

**"Klimarekin errespetuz
jokatzen duen garapen
eredu jasangarria behar dugu.
Hondamena gainean dagoenean
lanean hastea ez da nahikoa"**

**Jose Ignacio Asensio,
Gipuzkoako Ingurumen diputatua**

A esan, Z egin



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Tripa luzeko Partagas puruaren kea aurpegira botatzen dizun bitartean ohartaraziko dizu erretzaile pasiboek bizi duten arriskuaz, norbaitek egin behar luke zer bait problema larri horrekin. Haurra magalean hartu eta erregelarekin ipurdia gorritzen dion bitartean (zart!) egingo dizu (zart!) pedagogia librearen proselitismoa, puskaz (zart!) hobe eta maisu autoritarioen aldean (zart!). "Todos deberíamos hacer un esfuerzo para hablar más en euskera", esango dizu. Martxoaren 8ko manifestazio joango da emaztea etxearen eta haurren kargu utzita. Kexatuko da portalean drogadiktorek ez duelako nahi, tabernako komunean azkazalarekin irin pixka bat sudurreratzeko duen bitartean. Barran ukondotuta, jendea zein zeken eta egoista den nardatuko du, iritsiko da tragoentzat botea jartzeko momentua eta sueltorik ez du edukiko, azkeneko sei asteetan bezala -tragoak berdinduz edango ditu, azkeneko sei asteetan bezala-. Hitza emango dizu etorriko zaizula bila, eta eurpean ordubete zain pasa ondoren taxi bat hartu beharko duzu -"ez al zenukan autobusik ordu horretan?", galdetuko dizu-. Halakok hainbesteko kotxea zertarako behar duen kritikatu du soziedadean, "traste txikiagoan ere kabituko zen ba"; halakoren kotxe bera erosiko du sos batzuk eduki bezain pronto.

A esango du, Z egingo.

Eta hauteskundeak iristen direnean, botoa emango dio erraustegi bat eraikitzeke direnak eta ez direnak egin ondoren, klimarekin, jasangarritasunarekin, hondamen ekologikoarekin ahoa betetzen zaion politikariari. "Nire antza daukala esan didate", komentatuko du lagunartean. Eta behingoagatik, egia esaten ariko da. ■

EZ HANKA EZ BURU!




IRAILAREN 16TİK
RAMON ESONO EBALE MARRAZKILARIA
KARTZELAN DAGO TEODORO OBIANG NGUEMA,
EKUATORE GINEAKO PRESIDENTEA,
ARMA HAUEKIN ERASOTZEAGATIK...



ADUR

ANALISIA



Zer da doktrinatzea eta zer heztea?



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Kataluniari egokitu zaio orain, baina Euskal Herrian ere ohituta gaude, ikas-tetxeetan doktrinatzen dela entzutera. Beste behin, politikakeria egiteko arma bihurtu dute hezkuntza, eta irakasleen lan ona da jomuga. Baina hona sekretu bat: neutraltasuna ez da existitzen, ez fio kontrakoa saltzen duenarekin. Batzuentzat baloreetan heztea dena besteentzat manipulazioa eta doktrina dira, eta alderantziz.

Neutraltasunaren mozorroa darabilten hedabideak datozkit gogora, zintzo aurpegia jarrita proiektu "neutroak" aurkezten dituzten agintariak, lege eta epaiketa "neutroak". Eskolan ere, ez da berdina ikasgai –eta hizkuntza– bati edo besteari eskaintzea arreta gehien, Geografian mugak harago edo honantzago jartzea, Historian bertsio bat edo bestea irakastea, Erljioa edota Sexualitatea ematea/ez ematea erabakitzea...

Munduari zein betaurrekorekin begiratzten diogun –eta haurrei zein betaurreko janzten dizkiegun–, horra gakoa. Ez, irakaskuntza neutrorik ez da existitzen, ezta nahi ere! Nik behintzat, eta errealitatean dagoen aniztasuna ezkatutu gabe, oinarritzko balore batzuk defendatzen dituzten irakasleak nahi ditut.

Onena, iritzi propioa garatzeko tresnak ematea

Eskolan, etxean, telebistan jasotzen duen eraginak lagunduko dio haurrari bere mundu-ikuskera eratzen, garrantzitsua da beraz zein eduki eta balorek nahi dugun osatzea inguru hori, baina haurra ere borondate propioa eta erabakimena duen pertsona izanik, pentsamendu kritikoa eta iritzi propioa garatzeko tresnak ematea da egin dakioken oparirik onena, eta bereizten duena zer den doktrinatzea eta zer heztea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gure osasuna arriskuan



Juan Mari Arregi

Ez badugu gure zaintzailea zaintzen –zu eta ni izan gaitezke haren pazienteak–, ez baditugu gure erizainak zaintzen, nola zainduko ditugu gure gaixoak? Artatzen gaituzten horien osasuna, erizainena, arriskuan dago Euskal Herrian. Hori dio Osakidetza erizainen Satse sindikatuak egindako inkestak. Galdekatutakoan %81,02ak nabarmentzen du bere lan-baldintzak kaskartu egin direla murrizketen ondorioz. %80,29ak pentsatzen du ez duela denbora nahikorik bere pazienteei arreta modu egokian emateko, eta %77,37ak uste du bere unitatean ez dagoela langile nahikorik lana ondo egiteko. Ondorioz, %62,04aren iritziz, herritarrei eskaintako zerbitzuak okertu egin dira.

Inkestak bi arazo larri erakusten ditu: erizainaren osasuna, eta osasun zerbitzuaren kalitatea. Biak elkarren eskutik doaz. Osakidetza ezin du egoera kezagarri honen aurrean ezikusiarrena egin. Kontua ez da soilik makineta eta osasun sistemetan inbertitu eta hauei publizitatea ematea. Inbertsio handiena zaintzaileengan egin beharko litzateke, erizainak baitira baliabide horiekin gaixoak zaindu behar dituztenak. Osasun zerbitzuaren kalitatea hobetu nahi badugu, bere pertsonalaren lan-baldintzak hobetu beharko genituzke derrigor. Hausnarketa horrek ezinbestean eta berehala ekarri beharko luke lantaldeak handitzea eta Osakidetza lan egonkortasuna bermatzea.

Administrazioak beti kexaka ari dira diru-sarrera gutxi dituztelako eta aurrekontua murriztu dietelako. Horrek ez du balio. Baliabideen banaketa lehentasunen arabera egin behar da. Gure erizainen eta gaixoen osasunak ez al du San Mames berriaren eta Anoetaren eraikuntzak baino gehiago balio? Baliabideak lortzeko, beharrezkoak dira aurrekontu sozialagoak eta ez hain enpresarialak.



EKINKLIK.ORG

“Adur, Jokin, Oihan askatu”

ALTSASU. 5.000 lagun mobilizatu dira azaroaren 26an, Altsasuko gazteen espetxeratzetik urtebete pasa dela salatzeko. Epaiketaren data jakin berri (2018ko apirilaren 17tik 27ra), ordurako hiru gazteek 17 hilabete eginen dute kartzelan. Herri asanbladatik gogoratu dute defentsen proba asko “tribunalak arbuia-tu” egin dituela: “Horrek dugun beldurrean berresten gaitu, iruzurrez beteriko epaiketa zikin bati egin beharko diogu aurre. Gezurrek jarraitzen dute, manipulazioek jarraitzen dute... Muntaia aurrera doa”.

Urdaibain, Bizkaiko baso autoktonoa berreskuratzen

Unai Brea
@unaibrea

Lurgaiak fundazioak crowdfundinga ipini du abian, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren eremu batean lurraz erosi eta oraingo pinu eta eukaliptoen ordeztasun autoktonoa landatzeko, haritzak batez ere.

31 hektarea gehiago

“Gaur egun ia ez da geratzen baso heldu eta zabalik Bizkaian”, dio Lurgaiak, “garai batean hariztiak zeuden eremuaren %90etik gora galdu egin da”. Dagoneko 26 hektarea dituzte, eta akordioa egin dute beste 31 hektarea eskuratzeko.

Baxoa euskaraz

Galtzeko arriskuan den paisaia mota bat berreskuratzeaz gain, espezie aldaketak hainbat onura ekarriko dituela diote: zoruaren erosioa gutxitu, erreken ur kalitatea hobetu, biodibertsitate galera gelditu, klima aldaketari aurre egin...

Crowdfundinga

Urte amaieran egingo dituzte Lurgaiak luraren eskriturak, eta 108.000 euro ordaindu beharko dituzte datozen hiru urteetan. Orain arte bilduta duten funtsa nahikoa ez denez, crowdfunding kanpaina ipini dute martxan.

SEXU INDARKERIA



13

urte bete aurretik, lau neskatotik batek eta zazpi mutikotik batek sexu indarkeria jasan dute. Kasuen %90etan, haurren familia edo inguru hurbilekoa da erasotzailea, EHUren datuen arabera.

%2

Familia barruko sexu erasoaren %2 baino ez da ezagutera ematen gertatzen ari den momentuan.



BAKE PROZESUA

Parisko udalbatzak aho batez onartu du Euskal Herriko bake prozesua babestea. Onartutako testuan espresuki aipatzen da bake prozesuari sostengua adierazteko abenduaren 9an Parisen deitu duten manifestazioa, baita helburu horren alde lanean ari diren eragile sozial eta politikoak ere.



155 KALERATZE

Siemens Gamesa multinazionalak Nafarroako Sarrigurengo lantegian 91 behargin kaleratu ditu, Agustinosen 11 eta Orkoien 4. Bizkaiko Zamudioko zentroan, 48 kaleratze egingo ditu. Guztira 155 Euskal Herrian.



DURANGOKO AZOKA

200 kultur ekitaldi baino gehiago antolatuta dituzte Azokaren bost egunetarako (abenduaren 6tik 10era): liburu eta diskoez gain, zinema, antzerkia eta bideo-jokoak ere presente izango dira 52. edizio honetan.

Ez fidatu inperioaz: nola Sarkozy Kadafi zukutu eta gero hilarazi zuen



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Eta Libian Frantziak egindako gerra, Magrebeko potentzia bat kaosean murgildu eta Mediterraneoa itsaso arriskutsu bilakatu zuena, izan baldin bazen ustelkeriaren arrastoak ezabatzeko operazio bat? Nicolas Sarkozyren eta Muammar al Kadafiren arteko harremanen bilakaera azkarrek hala iradokitzen du. 2011tik zabaldutako susmoak orain bi kazetari frantsesen liburu berriak berretsi ditu.



Sarkozy-Kadafi afera lehenbizikoz 2011ko martxoan agertu zen hedabideetan. Urtarrilean oposizioaren kaleko manifestazio eta liskarretan hasitako mugimendua, udaberrirako gerra bilakatu zen. Tripoliko erregimena gain-behera zetorren eta Mendebaldeko potentzien artean Frantziak mehatxu egiten zion Libiari airetik erasotzearekin. Orduan esan zuen Muammar al Kadafik telebistako elkarrizketa batean: “Nik lagundu diot Sarkozyri agintea hartzen. Nik eman diot lehendakaritzara iristeko behar zuen dirua. Hona etorri zen, nire oihala etxolan bisitatu ninduen Barne ministro zela, eta laguntza eskatu zidan”.

Geroztik Frantzia asko aipatua izan bada Sarkozyren kanpainaren ustezko finantziarioa, orain Fabrice Arfi eta Karl Laske kazetariak lekukotasun eta dokumentu ugari osatuta eskaini dute Frantzia eta Libiaren arteko harreman kontraesankorrak eta azken herrialde honen txikizkia hobeto ulertzeko azalpena. *Mediapart* hedabideak plazaratu die ia 400 orrialde dauzkan *Avec les compliments du guide* (Goraintziak gidariaren partetik).

*Mediapart*ek sarean ipini du lekuko nagusiari egindako elkarrizketa, bideoan. Ziad Takieddine enpresa gizon frantses-libanoarraren ahotik John Le Carréren pertsonaia bat mintzo dela esan liteke. “Egun batean Abdallah Senoussik, Kadafiren atzerriko zerbitzuetako burua zenak, bere etxera deitu

eta proposatzen dit ea eramango diodan diruaren zati bat nik neuk Claude Guéant Frantziako Barne ministroaren kabinete buruari. Baina nola egingo dut hori Frantzian sartzeko, galdetu nion. Barne ministroa informatuko dugu eta ez duzu arazorik izango. Ondoren bere anaiak ekarri zuen maleta bat diruz betea, lehenbizikoak 1,5 milioi euro zituela esango nuke, gehienak 500eko billeteak, 200eko batzuk ere bai”.

Biharamunean Afriqiyah konpainiaren hegaldian egingo du Tripoli-Paris bidaia. Aireportuan, inolako arazorik ez maleta aduanatik pasatzeko gainerako bidaiarien artean. Handik autoa hartuta Barne ministeriora. Atarian izena emanda zuzenean kabinete-buruarengana, maleta handia entregatzera.

Takieddinek bi maleta gehiago eramane zituen Tripolitik Parisera, denetara bost milioi euro. Sei urte geroago, al Kadafi hil, gerrarekin bere erregimena desegin eta Libia hondamendi erabatekoan murgildu ostean, maleten bidaltzaile Abdallah Senoussik Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurrean berretsi zituen kopuruok, baina ñabardura garrantzitsu bat erantsita: diru hura ez zen bi herrialdeetako zerbitzu sekretuen arteko inolako konponketarako, baizik eta zuzenean Nicolas Sarkozyri Frantziako lehendakaritzarako kanpainan laguntzeko.

Takieddinen lekukotasunagatik izan balitz, erraz baztertu ahal izango zuten dena Sarkozyren kontrako operazio bat

baizik ez dela diotenek. Azken finean, lehendik beste hainbeste ustelkeria kasutan inplikaturako agentea da Takieddine, batik bat armen salerosketan hainbeste aldiz bitartekari lana egin duena. Baina Arfi eta Laskek beste lekukotasun eta batik bat dokumentu askorekin berretsi dute hark esana, Kadafiren eta Sarkozyren arteko harremanen panorama oso bat marrazteraino.

Ez da Sarkozy, Frantzia da

Kazetariak aipatzen duten agirieta batek, epaileek egiazkotzat daukatenak, eskaintzen du eskandaluaren neurria: Libiako zerbitzu sekretuen buru Moussa Koussak Sarkozyri 50 milioi emateko erabakia apuntatu zuen bere oharretan. Ordainketa guztiak ez daude dokumentatuta, baina bai batzuk, Saudi Arabia edo Malasiatik barrena jauzi eginez iristen direnak Parisera. Diru horiek agertu dira gero aipatu Guéanten edo 2005etik 2007ra lehen ministro izan zen Dominique de Villepinen saketan, zenbait erosketaren fakturekin erakutsi denez.

Diru asko, beti billettetan, eta nonbait gorde beharra zegoena. “2007an –diote kazetariak– Sarkozyren kanpainako zuzendari zen Claude Guéantek kutxa blindatu bat alokatu zuen Parisko banku batean, eta kutxa handia nahi zuenez, eman zioten bat gizona zutik sartzeko adinakoa”.

2005etik 2007ra bitartean Frantziak eta Libiak adiskidetasun handiko bo-



‘Non Stop Politique’ gunetik hartutako argazkian, Nicolas Sarkozy Muammar al Kadafi erreizibitzen Frantziako lehendakariaren Parisko jauregian, 2007ko abenduan. “Bisita hau urrats nabarmena izango da Libia berriro nazioartean ongi etorria izateko bidean”, esan zuten bezperan frantsesek. Lau urte paseak ez zirenean, 2011ko urriaren 20an preso hartuta zegoela hil zuten Kadafi, oraindik argitu ez diren baldintzetan.

lada bizi izan zuten. 2007ko abenduan 6 eguneko bisita ofizial arrandiatsua egin zuen Libiako liderrak Frantzian. Al Kadafiri komeni zitzaion nazioartean *estatu paria* moduan zeukan isolamendua hausteko, eta itxurazko maitasun hura garesti ordaintzeko adina diru ba-zeukan. Bide batez Abdallah Senoussik Frantziako auzitegieta 1998an hegazkin baten kontrako atentatuagatik –170 hildako– zeukan auzia ere askatu nahi zuen. Frantziak berriz Libiari saltzeko asko zeukan, armak bezala teknologia edo zernahi material.

Handik laster iritsiko zen gerra, ordea, 2011n. Arrazoi asko aipa daitezke Libiako matxinadaren eta gerraren pizgarri. Baina zer behar zeukan Sarkozy Libian hain erasokor jokatzeko? Egia, gerra bat beti ondo datorkio aginteari eutsi nahi dion lehendakari bati, eta

hauteskundeak 2012an ziren. Baina, gainera, horrelako gerra nahasietan beti dago arriskua dokumentazio eta frogak minberak gordelekuetatik aterata galtzeko, edo komeni ez den norbaiten eskuetara iristeko; ondorioz, hobe norbera okupatzea gera daitezten.

Liburuak, ordea, ez die errua soilik Sarkozy, Guéant, eta enparauei gaineratzen. Erakutsi nahi dute ustelkeria Estatuaren bihotzean dagoela sartua. Frantziako pertsonalitate gorenek Errepublikaren atal ilunenak utzi dituzte fidatzekoak ez diren Takieddine bezalako pertsonen eskuetan. Eta gero dena konplikatzen denean abandonatu egiten dituzte Estatuak egin ezin dituenak egiteko balio duten horiek: diruz betetako maleten eramaileak, berdin paradisu fiskaletan inbertitzeko edo armen salerosketen komisio ezkontuak ordaintzeko.

“Lobby militar-industrialak badago Frantzian ere” diote kazetariak. “Erakutsi nahi izan dugu jokabide berak, eta protagonista berak, aritu direla jokoan gutxienik Balladurren garaietan hasita [Mitterranden bigarren lehendakari-tza, 1993-1995] Sarkozyrenganaino”.

Irakurleak galde lezake, arrazoiz, hori horrela izanik nolaz iritsi diren informaziook publiko zabalarenganaino, berandu bada ere. Menturaz lobby militar-industrialak erabaki duelako Sarkozy bera ere aski zukutu ostein ostikadaz kanporatzeko garaia dela?

Zeren eta sekretuak gorde behar direnean erruki gutxi baitute *agente erreal* horiek. Libiako petrolio ministro ohi Choukri Ghanem, Sarkozyrentzako diruen lehen erreiziboen egilea, 2011n matxinoetara pasea, itota azaldu zen Vienan Danubio ibaian 2012an. ■

50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Paolina Vercoutere, Imbabura probintziako gobernadorea

«Ez diogu kolonizatu izateari utziko hezkuntza sistema irauli artean»

Joan den ekainaren 17an, Ekuadorreko Imbaburako gobernadore izendatu zuten. Eskualdean influentzia handiena duten zazpi emakumeen artean ageri da. Herrialdean inoiz izan den gobernadore indigenarik lehena. Paolina Vercoutere Quinche, kitxua.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Kitxua duzu hizkuntza indigena.

Gogoan dut amamak, gure hizkuntzari buruz ari eta yangaximi esaten zuela. *Yanga*, “ezer ez” da. *Ximi*, “hizkuntza” edo “ahoa”. Alegia, “ezerezaren hizkuntza” genuen *yangaximi*. Gure amak, berriz, kontra egiten zion: “Ez ezazula horrelakorik esan, ez da *yangaximi*, *run-gaximi* baizik!”. Alegia, *rungaximi*, “gizakiaren hizkuntza”. Horrexek markatu du gure galbidea, izan dugun galbidea, oraindik ere irauten duena. Biziberritze prozesuari ekitekotan, nahitaezkoak ditugu geure kulturarekiko harrotasuna eta geure izateari eta hizkuntzari lotutako atxikimendua. Gure arazorik handiena, berriz, gaur egun, harrotasuna eta atxikimendua berreskuratzea dugu. 2008az gero, Ekuadorreko herri indigenen eskubideak konstituzioan jasota daude. Bertako herri eta nazioek hezkuntza beren hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute. Konstituzioak direnak eta ez direnak onartzen ditu, baina kontua da hizkuntza horiek –kitxua, besteak beste–, baliorik gabetuak direla aspaldi,

prestigios gabetuak, eta ondorioz, gurasok ez dutela nahi beren seme-alabek kitxuaz edo gainerako hizkuntza indigenetan ikas dezaten.

Horixe egoera oraindik.

Gehiago esango dizut: kitxua hiztunak estatuaren administrazioari lotzen zaizkionean, antzaldatze bat gertatzen da hiztun horien baitan, espazio formaletan kitxuaz hitz egiteari uzten diote. Oso gauza arraroa... Deskolonizazio lana egin behar dugu –buruz eta gogoz deskolonizatu, oroz gain–, eta geure autoestimua berreskuratu. Hargatik ez ziguten gure aitaita-amama askok kitxuaz hitz egin, haiek jasandako tratatu txarra guk jaso ez genezan. Kitxua hiztunak halako doinu bat du gaztelaniaz hitz egiten duenean, eta hori salagarri luke! Hizkuntza ez irakastea biziraupen ariketa zen gure aitaita-amamen kasuan: “Ez zaizu baliagarri eta, are okerrago, kitxuaz hitz egiten duzula jakiten badute, diskriminatu egingo zaituzte”. Legezko diskurtsoa osatu dugu, bai, lege marko

bat, politika publikoa ere bai kulturartekotasunaren eta nazio aniztasunaren inguruan, baina kontua da funtzionatzen ez duen irakaskuntza sistema elebiduna dugula, ez dituela ikasle ez irakasle elebidunak sortzen, hiztunik ere bat ere ez... Horixe egoera, lege marko guztiak gorabehera.

Paolina Vercoutere Quinche

Frantzia, 1976

Flandriarra lehen deitura, kitxua bigarrena. Frantsesa aita, kitxua ama. Ekuadorren hazi zen haurretatik. Kultura eta Gizarte Garapena ikasketak egin zituen Otavaloko Unibertsitatean, eta Genero eta Politika Publikoak masterra Latinoamerikako Gizarte Zientzietako Fakultatean. Garabide erakundearen hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaldian izan zen urrian Euskal Herrian.



Harrigarri da kargu politiko zaren horrek aitortzea.

Asko hitz egiten da estatu nazio aniztun eta dibertsitatez betetakoaz, emakumea barne hartzen duenaz eta hau eta hura, baina, sakon-sakonean, ez dago egoera iraultzeko borondate politikorik. Eta pena handiarekin diot, ni sistema politiko horren barruan bainago. Eta uste dut beharrezkoa dela barruan egotea. Kanpoko aktibismoa bezain inportantea da barrutik eragitea, zenbait espaziotan –minimoak badira ere–, galderak egin eta zalantzak eragitea. Ni neu, gobernadore izan baino lehen, Ekonomia eta Gizarte Barne Hartzeko Ministerioko zuzendari izan nintzen eta haurrak, adinekoak eta ezgaitasunen bat duten pertsonak nituen ardura. Zuzendari izan nintzen garaian irizpide halako bat ezarri nuen familia laguntzaileak hautatzeko garaian: elebidun izan behar ziren. Horrek erresistentzia handiak ekarri zizkidan, baita neure alderdiaren barruan ere. Arrazistatzat hartu ninduten, nire Ministerio hura indioz beterik zegoela aditu behar izan nuen. Eta orain, gobernuan nagoela ere, gisako komentarioak aditu behar izan ditut. “Hemen indio usaina dago orain”. Hamaika horrelako. Esamesa horiek hor daude oraindik. Nik, esaterako, prentsa arduradun bat dut, kitxua hiztuna jatorriz –ni ez beza–, neuk errekrutatu nuena.

Barkatu, ez zara jatorrizko kitxua hiztuna?

Ez. Nire inguruan espainola, frantsesa eta kitxua erabiltzen ziren. Geroago, baita ingelesa ere. Prozesu bat izan zen. Eskola libre batera joan nintzen. Han izan nintzen 13 urte bete arte. Harrezkero, eskola frantsesera sartu nintzen. Gazterik ezkondu nintzen, eta kitxua hiztun jatorrarekin esposatu nintzen –kitxua familia zeharo tradizionalakoa–, eta orduan, nire burua berreraiki eta kitxuaz ikasi nuen nire amarekin. Bestalde, gure ama hizkuntzaren eta kulturaren aldeko borrokalari suharra izan da beti.

Hizkuntz kontzientziaren jabe zaitugu, dena den.

Hizkuntzaren kontzientzia dut, eta militantziaren zentzua ere bai. Horrexek mugitzen nau. Ez dut kitxuaz erraz hitz egiten, oinarritzakoa baizik. Dena ulertzen dut, eta hitz egin behar dudanean, beste erremediorik ez dudanean, hitz

Fartsa

“Herri indigenen eskubideen aitortzarik bada, baina aitortza formala da, ez besterik. Gainerakoan, inork ez du ahalegin txikiene ere egin nahi. Zuri-mestizoez –hau da, estatuaren egiturek–, ez dute saiatu nahi, eroso daude beren hizkuntzan hitz egiten, ez dute esfortzurik egiteko asmorik”

Kolonizatua

“Senarra kitxua hiztun jatorra dut, baina ez die gure seme-alabei kitxuaz hitz egiten, nahiz eta ni borroka honetan sartuta egon. Jasotako hezkuntzak kolonizatu zuen, hamaikatan esan zioten bere hizkuntzak ez zuela ezertarako balio, barneratu zuen esan ziotena, eta ez da iraultzeko gai izan. Latza da”

Familia transmisioa

“Hiri giroan guztiz etena dugu kitxuaren familia transmisioa. Landa eremuan eusten diote transmisioari oraindik, baina landa eremuan kitxuaz hazi diren horiek hirira etortzen direnean ere, eten egiten da transmisioa. ‘Indioen hizkuntza da, ez du ezertarako balio’, diote. Aurreiritzi horixe da oraintxe dugun arazorik handiena”

egiten dut. Nekazarien artean, adibidez, elebidunak ez direnean, hitz egiten dut. Oso ondo hitz egiten duen jendearen aurrean, berriz, lotsatu egiten naiz, nirea ez delako haurretan ikasia, geroan baizik, eta doinuak salatzen nau. Senarrak, kitxua hiztun jatorra baita, barre egiten du nire lepotik, doinu jatorrik ez dudalako. Nire lanean, langilerik kontratatu behar dudanean, elebidunak hartzen ditut beti.

Prentsa kabineteari dagokionez, kitxua hiztun jatorra izendatu nuen zuzendari eta, harrezkero, kitxuaz eta espainolez zabaltzen ditugu gure oharkizun eta jakinarazpen guztiak. Kitxua lehenestea garrantzi handikoa da niretzat, amari zor diot, amamari, nire komunitateari. Garbia izan beharra daukat, garbia izateari uzten diodan egunean politikatik irteteko garaia izango baitut.

Ez da aise izan behar kitxua izaten giro horretan.

Gobernadore naizela, janzkera jakina daramat beti, neure burua politikoki errebindikatzeko bidea dut. Badakit nire janzkerak zer esan nahi duen, ekin-tza politikoa da, emakumerik inoiz egon ez den gune batean nago. Militarrekin egon ohi naiz, poliziaren agintariekin, eta beharrezko zait haiekin egotea, haien iruditeria zartzeko, hain zuzen, zeren eta oraindano arte, emakumezko bat ni bezala jantzita zerbitzaritzat hartua izan baita beti. Aberatsen etxeko lanak egiten zituen neskamea. Garrantzizkoa zait horren kontra egitea, eta horregatik noa beti era jakin honetara jantzita. Konplikatu da, hala ere, neure alderdian bertan ere, Alianza País izenekoan ez bainaute ulertzen.

Zer diozu kulturartekotasunari buruz? Behin eta berriz eta askotan erabiltzen den hitza.

Kulturartekotasuna diskurtso politikoki zuzenaren barrura sartu da. Hain dago erabilia, hain maiseatua, higatua... ezen esanahia galdu baitu. Gure herrian, esaterako, ez dago kulturartekotasunik. Ez, behintzat, nik ulertzen dudana moduan, nik botere banaketatzat ulertzen baitut. Alegia, bost mende produkzio bitartekoak, botere politikoa, baliabideak, erabakiak hartzeko ahalmena... dena izan duen horrek hori banatzen hasten denean hasiko da kulturartekotasuna. Hurkoari berdintasunez hitz egitea, era horizontalean jardutea... da kulturartekotasuna. Horixe litzateke ideala, eta horixe da ez daukaguna. Gainerakoan, hainbeste maiseatu da hitza –“tolerantea naiz” eta hau eta hura–, ezen hitzak esanahia galdu baitu eta ez du ezer esan nahi.

Usteko nuen bestela zela giroa Otavalon.

Duela hogeit urtetik hona bizi naiz Otavalon, sinbolismo handiko hiria Ekua-

dorren. Gure arbasoak Imbabura mui-noaren magalean bizi ziren, hiriak guztiz baztertuak zeuzkala, hiria bote-re zuri-mestizoaren erdigunea zenean. Iragan mendeko 80ko hamarkadan, hainbat dinamika komertzial tarteko, kitxuek diru arrakasta handia izan zu-ten eta hiriaren jabego guztiak erosi zituzten. Kitxuok egin ginen hiriaren jabe, eta horren ondorioz, botere politi-koaren borrokan sartu ahal izan ginen, eta historian estreinakoz, alkate indige-na bat izan genuen. 1990ean, Asanblea Nazionalak Ekuadorreko kulturarteko hiriburu izendatu zuen Otavalo. Beste erremediorik ere ez zuen, tentsio be-tean bizi baikinen hirian –eta bizi bai-kara, esan beharko nuke–, indigenak eta zuri-mestizoak erdibana baikara Otavalon. Elkarri kasurik egiten ez dio-gula bizi gara. Etnien arteko arazoak nahi baino gehiago dira, arrazakeria ez dago baztertua. Berniza bai, emana dago, baina urra ezazu apur bat berniz hori azkazal puntarekin eta hantxe bis-taratuko zaizu arrazakeria.

Etnien arteko arazoak, arrazakeria, iden-titate ezberdinak lurralde berean.

Gogotik errebindikatzan dut identitatea, eta neurri berean kuestionatzen ditut, berriz, esentzialismoa eta tradiziona-lismoa, emakumeen aldeko borrokaren militante bainaiz. Konfliktua eragiten dit kanpo aldera diskurtso politikoki zuzena egin beharrak. Hitzak neurtu behar izaten ditut, ez ditut esan nahi-ko nituzkeen denak esaten, baina ezta esan behar diren hitz politikoki zuzen guztiak esaten ere. Lehendakariaren ordezkari naiz, eta ezin dut esan dena gaizki dagoela. Aurrerapenak ere izan dira. Ekuadortarra naizen aldetik, egia da hori. Doako hezkuntzara sarbidea dugu –amets hutsa duela gutxi arte–, osasun sarea, gure eskubideen gaineko kontzientzia handiagoa... Gauza asko, joan deneko hamar urtean egin direnak, estatua ikaragarri indartu denetik. Ordu arte ez baikenuen estatutik, estatuaren presentzia besterik, guri ez zegokigun egitura bat. Zuek ehunka urte darama-zue estatua eraikitzen. Gu horretan ha-siberriak gaituzue.

Politikoki zuzenaren eta barnean sen-titzen duzunaren artean murgil igerian behar duzu.

Bai, bada. Eta, esaterako, horretaz ari

BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

LiburuTEKia VI. jardunaldiak

Diputazio Kalea, 7 - 2. solairua, areto nagusia
48008 Bilbo, Bizkaia - 944 608 24 87

» Erakusketa: Euskal mitologia

Data: Abenduaren 11tik urtarrilaren 5era

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 10:00-14:00 eta 16:30-19:30

Larunbatean: 10:30-13:00

» Literatura Topaketak: Jabier Kalzakorta

Data: Abenduak 1

Ordua: 19:00

Izenburua: Olentzero tradiziozko euskal kantutegian

Hizkuntza: euskaraz

» “Ezkerraldeko ipuinak” liburuaren aurkezpena

Data: Abenduak 19

Ordua: 19:00

Hizlariak: Itziar Minguez, David Tijero

Hizkuntza: Elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz)

Doako sarrera, edukiera osatu arte (Foru Liburutegian sartu ahal izateko, NAN, pasaportea edota Liburutegiko txartela aurkeztu behar da sarreran)

Rekalde Aretoa

Rekalde Zumarkalea, 30 - 48009 Bilbo, Bizkaia - 944 06 85 32

» Euskararen eguna ospatzen (euskaraz)

Data: Abenduak 2

• Ordutegia: 10:30-11:45, 3-6 urte

• Ordutegia: 12:00-13:30, 7-11 urte

Rekalde Aretoan “Euskararen nazioarteko eguna” ospatzen dugu urtero.

Tailer honetan euskararen erabilpena sustatu nahi dugu dinamika eta ariketa plastikoen bitartez.

» Familiarentzako tailerra (euskaraz eta gaztelaniaz)

Data: Abenduak 16

Ordutegia: 11:00-13:00, 4-11 urte bitartekoentzat heldu bat edo bi lagun dituztela.

“Espazioak eraldatzen” izenburupean, Ixone Sádabak aretoa nola eraldatu duen ezagutuko dugu eta guk ere hainbat elementu erabilita, espazioa eraldatuko dugu eta gure lekurako egindako instalazioa sortuko dugu.

» Gabonetako tailerra (euskaraz eta gaztelaniaz)

Data: Abenduak 26, 27 eta 28

• Ordutegia: 10:30-11:45, 3-6 urte

• Ordutegia: 12:00-13:30, 7-11 urte

naiz master txostena idazten, generoaren ikuspegitik aztertzen nola bizirauten dugun emakumeek espazio horietan.

Masterra idazten ere ari zara. Zer diozu lan horretan, jakin baliteke?

Nondik natorren kontatzen dut, nire bizi esperientzia azaltzen dut teoria feministaren barnean. Sentimenduetatik abiatu eta amamaren, amaren, aitaren eta neure narrazioa osatu dut, teoriarekin lotuz. Beste alde batetik, hainbat elkarrizketa egin ditut, hala kitxua direnen artean nola ez direnen artean, emakumeei buruz duten iruditeriaz galdezka. Nik neuk emakume kitxuatzat berresten dut nire burua, berdinetik berdinerara begiratzen diot ondokoari. Jaso dudana heziketari zor diot. Ez nago inoren aurrean begirada jaisteko prest. Eta horrek probokatu egiten du, aztoragarri zaio askori. Eta horixe nahi dut nik, beren baitan duten emakume indigena zerbitzariaren irudia deseraikitzea. Horixe da nire borroka.

Euskal Herrian izan zara Garabide erakundearen ikastaroan. Zer ikusi duzu, zer asmo duzu Ekuadorren?

Ikusi dut gauza ez dela lider baten kontua, sinergia eta gizartearen baitako askotariko faktoreen batura lortzea baizik. Kooperatibak ikusi ditudalarik, adibidez, pentsatu dut horrek ekonomian ez ezik, maila politiko, sozial eta kulturalen ere izan behar duela eraginik. Kolektibitate osoari dagokiola fenomeno. Ekuadorren, berriz, espazio bat sortu nahiko nuke hezkuntza sistemaren barnean. Lehendakariaren eta Hezkuntza ministroaren sostengua dut. Ez dut gordin esateko ohiturarik: "Hez-



Azken hitza: Kitxuaz

"Unibertsitatean graduatzeko garaian, kitxuaz egin genuen tesia bi lagunen artean. Ordurako, konstituzioan jasota zegoen gure hizkuntzan jarduteko eskubidea. Gure aurrean, epaimahaia, inork ere kitxua ulertzen ez zuela. Nire kideak kitxuaz egin zuen aurkezpena, nik bat-bateko itzulpena egin nion. Epaimahaian, batak besteari galdeztzen zioten: 'Zergatik hitz egiten dute horrela?', 'Konstituzioan jasota dago, eskubidea dute', 'Legezkoa da?', 'Bai, bai'. Horrelaxe! Kar, kar..."

.....

kuntza sistemak ez du funtzionatzen". Ez. Aldiz, esan ohi dut: "Eredu elebidun bat proposatu nahiko nuke Otavalon...". Eta haiek, baietz: "Aski indar baduzu, aurrera!". Eta nik horixe nahiko nuke, eredu berri bat eraiki, eta bitartean, hezkuntza eredua birpentsatu, ez baitiogu herri kolonizatu izateari utziko hezkuntza sistema irauli artean, guztiz memoristikoa baita, gizabanako bezala ezereztu egiten baikaitu, aldi oro gu minimizatzen, autoestimua oinpean arrastaka eramatera behartzen... Hezkuntzaren bidetik etorriko da hizkuntza berreskuratzea, eta hizkuntza berreskuratzea gure kultura, gure izatea eta gure mundu ikuskera berreskuratzea izango da. Ardura horixe daukat, horrexegatik nago nagoen lekuan orain. ■

Diman
euskaraz gara



Kukua

Kukuak maiatz aldera jotzen duenean, poltsikoan gordetako txanponen arabera urte osorako zoria neurtzen duenik badago. Kukua-ren kantarekin batera heldu ohi zaigu ogasuneko errenta kanpaina eta horren neurria egiten dugu beste askok balorazioa: iaz baino gehiago edo gutxiago itzuliko diguten, ordaintzea egokituko ote zaigun... Tamalez, sinple bezain sinplista dira bai kukua eta baita zergen likidazioaren arau hori ere.

Abenduan, kukuaren kanturik gabe, onartu ohi dira urte berrirako aurrekontuak, eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du honezkero 2018rako aurrekontu-proiektua. Aurretik dugun urtea baloratzerako orduan, diru-kontu horien atzean ezkututzen denak era fide-lagoan hurbiltzeko gaitu errealitatera. Badakit, erromantikoagoa da kukuaren kantua, eta askoz nekezago eta uler-gaitzago zero asko duen zifra handiak baloratzea. Gainera, zifrak ezin dira era absolutuan konparatu: aurrekontueta-ko gastuen zenbatekoa herrialdearen aberastasun mailarekin eta bildutako zergekin lotuta ere badagoelako.

Esate baterako, 2017ko diru-bilketan hazkundera egon den arren, aintzat hartu behar da aurtengo diru bilketarekin 2007an genuen mailan kokatu garela. Beraz, ez gaitezen gehiegi emozionatu! Hamar urte behar izan ditugu 2007an genuen diru-bilketa maila berreskuratzeko eta bitartean, noski, aurrekontuak murriztu eta zorra handitu egin dira.

Horretaz gain, 2018ko aurrekontu-proiektua baloratzeko orduan badaude baztertu beharreko bi kontu, aurrekontuen izaera goitik behera itxuragabetzen dute eta. Izan ere, aurrekontuaren tamaina %15ean murrizten da zor-aren ordainketa eta AHTren tamainako lanak finantzatzeko diru aurrerapenak deskontatzen baditugu.



Aiala Elorrieta

EKONOMIALARIA

@aialuski

2017ko diru-bilketan hazkundera egon den arren, aintzat hartu behar da aurtengo diru bilketarekin 2007an genuen mailan kokatu garela. Beraz, ez gaitezen gehiegi emozionatu! Hamar urte behar izan ditugu 2007an genuen diru-bilketa maila berreskuratzeko eta bitartean, noski, aurrekontuak murriztu eta zorra handitu egin dira

Hortik aurrera, aurrekontua mugatzen duten beste bi freno handi daude. Lehena 2011ko abuztutik datorkigu: kukua eta lurtar asko udako oporretako lozorroan ginen bitartean, Konstituzioaren 135. artikulua aldatu zuen Zapaterok Alderdi Popularraren sostenguari esker. Erreforma honen

bitartez, instituzio guztiek lehenetasun gorena eman behar diote zor publikoa-ren ordainketari. Hau da, tokian tokiko gobernuei, benetako aurrekontu-politika aurrera eramateko egundoko oztopoa ekarri du erreformak. Arau neoliberalen instituzionalizazioan pauso garrantzitsua izan da eta era berean, 155. artikulua aplikatu beharrik gabe, erkidegoen autonomia bete-betean murrizten duen araua dugu.

Bigarren galga, 2017ko uztailetik dator eta Espainiatik datorkigun arren, Eusko Jaurlaritzari ez zaizkio inposatuak izan. Izan ere, EAJren sostenguari esker finkatu da, alde batetik, administrazio guztietako aurrekontuek izan dezaketene gehieneko defizita: autonomia-erkidegoen defizitak ezingo du BPGaren %0,4 gaingitu 2018. urtean. Era mailakatuan, 2020. urterako defizitik ezingo dela izan adostu da. Defizita debekatzearekin batera, superabitari ere jartzen dizkio mugak "gastu-araua" delakoa. Diru-bilketa ondo ez doanean, gastua murriztu beharra dago, defizitaren muga betetzeko. Ostera, diru-bilketa ondo doanean eta superabita dagoenean ere, gastua ezingo da BPGa baino gehiago hazi. Horrek esan nahi du, gastu publikoa, errenta mailaren hazkunderaren azpitik haziko dela. Horrela urterik urte, sektore publikoaren tamaina murriztuz joango da. Finean, Keynes-en politika antiziklikoak gauzatzeko eta sektore publikoan pausu aurrerakoia emateko legezko muga da. Maila bat gorago, arau neoliberalen instituzionalizazio prozesuan.

Ez gara oraindik heldu baloratzera, hezkuntzan, osasunean edota gizarte politikan zenbat gastatuko den, baina honezkero susmatzen dut, aurrekontuaren muga guzti horiek ikusita, 2018. urtea ez dela hobia izango. Urte berria datorkigu ku-ku ku-ku eta patrikak, tamalez, harriz beteta ditugu. ■

Araba euskaldunagoa, baina...

Asier Etxenikeren hitzak dira, *Alea* aldizkarian jasoak: “Gure ingurua uste duguna baino euskaldunagoa da, baina horretaz jabetu behar gara euskaldunak, kontzientzia hartu behar dugu eta euskaraz bizitzeko ditugun aukerak baliatu...”

Idea hori erabat berretsi zen Gasteizen, Euskaltzaindiak egindako XXII. Jaigon Jardunaldian. Hantxe azaldu bezala, VI. Inkesta Soziolinguistikoak erakutsi du 16-30 urte bitarteko lau arabarretik hiru euskaldunak direla. Euskararen erabilera orokorra, % 5,6koa baino ez bada oraindik, 1,3 puntu igo da 2011tik 2016ra. Haur eta nerabeek datu altuagoak emango lituzkete, dudarik gabe. Era berean, VII. Kale Erabileraren Neurketak ere goranzko joera erakutsi duela azaldu zen jardunaldi horretan.

Bilakaera positibo hori bultzatzen ari diren hainbat ekimen herritar, profesional eta instituzionaleko ordezkariak ahotsa izan zuten esandako jardunaldian. Prozesuaren argi-ilunak agerian jarri ziren, betiere oso tonu orekatu eta neurtuan. Aurrera begirako sententzioak, oro har, itxaropentsuak eta ilusionagarriak.

Lerro-burua, hala ere, *baina* batez amaitu dugu. Zergatik? Hizlarien pisuzko kezken eta kexen artetik bat gailendu



Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA

@imartinezdeluna

Lerro-burua, hala ere, “baina” batez amaitu dugu. Zergatik? Hizlarien pisuzko kezken eta kexen artetik bat gailendu zitzairen gainerakoei: Trebiñuko testigantza gordina

zitzairen gainerakoei: Trebiño Konderriko testigantza gordina. Izan ere, Araba den –edo izan beharko lukeen eskualde hori– “ez da Araba” euskarari dagokionez. Hala esan zuen Gutxisolo elkarteko Pilar Ansotegik, baieztapen hori argudio esanguratsu ugariz hornituz.

Trebiñoko Konderrian egin diren urratsak miresgarriak dira, besteak

beste Argantzun ikastola ireki izana. Emandako pausoak azaltzearekin batera, eskualde horretako ordezkaria beste ahots batzuen bozeramailea ere izan zen. Larriak ez balira, *esperpentikotzat* jo genitzake euskararen inguruko pasadizo batzuk; adibidez, guardia zibilak ikastola inguruetan kontrolak jartzea. Euskara arriskutsua omen Castilla-Leongo erkidegoan; baita erabat atzerritarra ere. Afrika edo Asiako hizkuntzak bezain arrotz, hain zuzen, ez baitute erkidego autonomikoaren ofizialtasunean zirrikitu txikiarik ere. Bestalde, Arabako erakundeek eskumenetatik harago dauke; “ez da Araba” euskarari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, euskara bultzatzeko ahaleginetan dena bihurtzen da zailtasun eta oztopo.

Trebiñuko kontakizunak frankismo garaiko bizipen latzak gogorarazten zizkigun entzuleei. Daukaten helduleku ia bakarra herritarren babesa da. Hango egoerarekin alderatuta, Arabako (beste) lurraldeetan izandako aldaketa agerikoa da. Horregatik, faxismoaren inertzia astuna Espainian inoiz gaindituko bada, Konstituzioak izan beharko lukeen errotikako eraldaketan lekuan lekuko hizkuntzei aitorza egin beharko zaio. Bitartean, Araba euskaldunagoa, bai, baina... ■



Eraikitzeko ordua



Mikel Irizar
HIZKUNTZA
BERDINTASUNEO
ZUZENDARIA
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAN
@mirizarberdin

Uste dut egintzat eman dezakegula euskararen prozesua aro berri batean sartzeko lehen baldintza: zoru komun bat identifikatzea, terminologia eta diagnostikoak hurbiltzea, lubakien gainean zubi behin-behinekoak jartzea... Zantzu asko dago, izan Korrikaren Santiago zubiko argazkia, Udaltop jardunaldiko ekimena, Euskal Herriko euskararen erakunde publikoen lankidetzak akordioa... Azken zantzua, Kontseiluak berriki egin duen ekitaldian azaldu zuen diskurtso berriaren osagaiak: konplizitate publiko-soziala, hizkuntza politika elkarrekin birpentsatu, egitasmo partekatuak eta jauzi esanguratsu bat egiteko aukera.

Behin oinarritzakoa zen baldintza sortuta, ordua da zoru komun horren gainean eraikitzen hasteko. Eraiki beharko genituzke, ordena honetan:

1. Elkarrenganako konfiantza. Mesfidantzaren garaian, ohiko bihurtu zaigu solaskidearen hitzei baino intentzio ustezkoei gehiago erreparatzea. Konfiantza da sinestea solaskidearen nahia dela hain justu esaten ari zaigun hori, beste tolesdurarik gabe.

2. Ekimen partekatuak. Konfiantza igurtziarekin sortzen da; eta igurtzia, ekimen partekatuekin. Balekoa da batek antolatzea eta besteak atxikitzea, baina hobe da elkarrekin antolatzea eta gauzatzea, bide osoa elkarrekin egitea; ekintzan bezainbat, ideien artean ere igurtzia bilatzea.

Praktikatzeak aukera ezin hobea da indartzen ari den aktibazioaren dinamika, ahobizi-en eta bela-rriprest-en festa.

3. Marko instituzionala. Aspaldi amestutako urratsak gauzatzen hasi dira, bai erakunde publikoen artean (euskararen herriko hiru administrazioen akordioa), bai erakunde publiko eta gizarteko artean (HPS-Topagunea ardatza aktibaziorako). Marko hau osatu eta egonkortu egin behar da, prozesua baliabidez eta bermez hornitzeko. Erakunde publiko/sozialen egitekoa da baldintzak sortzea hitzunik bidea egin dezan, gero eta erosoago, haizea alde jarrita.

4. Ibilbide planifikatua. Behin bidean elkarrekin abiatuta, ezinbestekoa izango da ibilbidearen mapa adostea: epe jakin bateko helburua (25 urte?), haraino iristeko palankak eta palankariak (funtzio banaketa), tarteko helmugak eta helburuak, neurketa sistema, beharrezko baliabideak...

Lehen bi esparruak emozioekin lotzen dira, batipat, eta inguru hurbilean landu behar dira nagusiki, ohiko harremanen esparruan. Azken biak, aldiz, jakintza eskatzen dute borondateaz gain, eta egituren bidez ekin behar zaie. Alde horretatik, oso lagungarri litzateke gune bat propio sortzea, euskararen erakunde publiko guztiak eta unibertsitateak bilduko litzatekeena, ezagutza zientifikotik marko instituzional bateratua eta plangintza adostua bultzatzeko. ■

Iraultzak ez du beti iraultzen



Edu Zelaia
IDAZLEA

Belaunaldien arteko tentsioa garai (eta latitude) orotarikoa dela iduri du: gu munduratu baino lehen bazegoen eta, azken orduko hondamendirik ezean, gure mundualdia bukatutakoan ere indarrean egonen da.

Hala agertzen dute denboraren soka luzetik berreskuratzen ahal diren zenbait testigantzak. Alde horretatik, harrigarri bezain argigarri gertatzen da Babiloniako buztinezko ontzi batean idatzita ageri dena, duela lau mila urte inguru idatzi omen zutena: "Gazteria galbidean dabil; gazteak alferrak eta gaizkileak dira, ez dira sekula izango lehengo gazteen parekoak". Arestiko hitzen

osagarri izan litezke hainbat mende geroago (eta beste leku batean) Sokrates filosofoari egozten zaizkionak: "Gure gazteak gaizki hazita daude, luxua besterik ez dute nahi. [...] gurasoei aurre egiten diete eta ez diete errespeturik irakasleei".

Antzeko salaketak aditzen dira XXI. mendean ere. Horietako dezente teknologia berriekin lotzen dira. Edonola ere, Internetek ekarritako iraultzak ez bide du belaunaldien arteko gatazkaren afera irauli: gazteak, honetan ere, forma berria du maiteago zaharrak baino. Gu munduratu baino lehen bezala. Gure mundualdia bukatutakoan bezala. ■

Haurdun egon daiteke

Hona hemen gertakaria:
– Lanaldirako ez da hautatua izan.
Bestea hobetsi da gaitasun gehiago ukaiteagatik. Omen.

Nahiz prestakuntza eta esperientzia onak ukan, 33 urteko Amaiur ez da lana atzematekotan. Hark pentsatuko du gaitasuna dela arazoa, huts egiten dituela lan elkarrizketak, ez dakielako ideiak ontsa azaltzen, azalpenetan nahasten dela, agian jantziak ez dituela ongi hautatzen, beharbada zazpi urte lehenagoko tirabirarengatik diotela lanpostua ukatzen gaur.

– Omen?

– Hogeita hamar urte ditu: baliteke haurdun egon dadin eta amatasun geldialdian sei hilabetez, eta ondotik burua arin. Arduradunei ez zaizkie holakoak gehiegi gustatzen, badakizu.

Denek dakigu. Zer erran gehiago? Gaia zabaldua da, arduradunak maiz gizonak direlarik, emazte bat ardura postutan hartu aitzin buruhauste anitz dutela. Emazteak beti gehiago eta hobeki egin behar du, maila ertaineko edozein gizonen heineko kontsideraziora eta lansaria ateratzera heltzeko. Gauza jakina da. %200ean zabilta edo ez duzu balio. Horretaz gain orain, konpetentzietan gailentzen denean ere, hobesten da haurdun gertatuko denaren ez hartzea.

Harrigarria ez da, sendi da ardura CVetan ekarri erreferentzietatik kanpoko kriterioak badirela, isilean, konpainia murriztean, berdin pentsatzen duten jende artean. Lotsagarriki gertatzen da, egitura instituzionalen baitan, diru publikoa gastatzen den horietan, zeinetan legea, berdintasunarena barne, bermatzen ahalegindu beharko bailitzateke. Hautetsi, legelari, kargudunen eskutik berdin. Enpresetan ere, bere burua aberzale eta progresistatzat dutenen artean barne, horrela pasatzen da, hitz erdika, korridoreetan xuxurlaturik, begirada soilen bidez adosturik, noizbehinka



Bea Salaberri

IDAZLEA

@beatxo



Antton Olariaga

emazte zenbaitek babesturik ere agian, nork daki, eta omen batzuez moztururik datoz gero argumentu pruntak guzia zuritzeko. Baliteke ez ginatekeela anitz okertuko erranen bagenu euskalgintzako egituretan ere gertatzen dela, justuki mota guzietako diskriminazioen biktimak izaten ohituak diren horietan beretan. Gure ondoko gizonek dituzte ahapeka holakoak aitortzen. Zeren eta, gainera, gutxi balitz, aitortzen ere diren jokamoldeak baitira, konfiantzan sentitzen den ber, ingurukoak bat datozela suposatuz edo jakinik ez direla kexatzeko gauzak izanen.

Lanposturako gai zarenez onesteaz gain, sistema kakaztu honen eskuduntzakoa da erabakitzea zein den adina haurrak egiteko, eta ondorioz langile eskas ez aski dedikatua izatekoa. Honen eskumeneneko da horregatik baztertzea, ordezkari atzemateko lanik hartu gabe eta aldi berean parekidetasunaren onurak espantatuz lau haizeetara. Erabakitzen du, oroitarazten, haurrak egiteko adina, erdi aroan bezalatsu; 30 urteak dira gizarteak gehien azpimarratzen dizkizunak, adin horretan omen baitzenuke hasi behar haurgintza. Ohiko presio sozialaz gain, nagusiek ere azpimarratuko dute eta hobetsiko zure kontratatzea adin tarte jakin batzuetatik kanpo, baitakite zuk baino hobeki, ez noiz zaren profesionalki prest baizik eta noiz ordu estrak tira-ahala egiten ahalko dituzun, noiz xurgatzen ahalko zaituzten sariztatutik harago, noiz den lana izanen zure kezka nagusia eta bakarra. Garapen pertsonal eta profesionalak kalkulu hotzen arabera balira bezala, eta uztargarriak ez.

Konpetentziarik aski eta soberan di-tuen emaztea bazara, 30-40 urte inguru badituzu, ez ukan pretentsio profesional gehiegi, eta bazenu, lasai, inausiko dizute. Nahiagoko dute konpetentzia gutxiagoko gizona kontratatu. ■



**1, 2, 3... 360, 361, 362, 363, 364,
BAI, EUSKARAK 365 EGUN.**

Hitz eta jolas. Lan eta bizi. Donostiarron ahotan eta belarritan euskara izatea. Urteko egun guztietan euskaraz egingo duen Donostia lortzea. Hori da erronka. Ospatu Euskararen Nazioarteko Eguna eta egin dezagun aurrera.

#Goazen  Donostia



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

ARGIA.eus-ek 20 urte

Internet, kazetaritza proiektua indartzeko gakoa

ARGIAren webguneak 20 urte bete ditu. Euskarazko hedabideetan aitzindaria izan zen sarera salto egiten Nafarroako Mendialdeko *Tipi Ttaparekin* batera, garai hartako kideen ikuspegiari eta teknikoki oso kualifikatutako bidelagunei esker. Ordutik, kazetaritzaren mundua goitik behera aldatu da, eta egun ARGIA ez da ulertzen sarean egiten den lana kontuan hartu gabe. Webgunea berrituz ospatu nahi dugu urteurrena, eta bide batez, Interneti buruzko gogoeta hau kaleratu.



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaitz

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Kataluniako erreferendumaren eguna, urriak 1, igandea. ARGIAko erredakzioak apustua egitea erabakia du: lantalde txikia izan arren, kazetari guztiak jarriko dira gaia jarraitzera. Bi kazetari Bartzelonatik, beste guztiak etxetik, taldetan txandaka antolatuta, goizaldek 04:00etatik hurrengo eguneko ordu txikiak arte informazioaren zurrumbiloan sartuko dira. Testigantzak biltzen, datuak bilatzen edo albisteak idazten, Kataluniatik euskaldunak bidaltzen ari diren materiala sareratzen, eskuragarri ditugun kanal guztien bidez jendea informatzen... eta hurrengo egunean ohi bezala aldizkaria inprentara bidali eta sarean erreakzioekin jarraituko dugu. Papereko kazetaritzaren kulturatik datorren lantalde batek mundu digitalera indar osoz egindako saltoa irudikatzeko balio lezake egun hark. Eraitza: Urriaren 1ean ARGIAk webgunean inoiz izan

duen bisitari kopuru altuena jaso zuen, sare sozialetan ehunka milaka pertsonarengana heldu zen eta nekeak neke, erronka zailari ongi eutsi izanaren sentimendua partekatzen zuen lantaldeak.

Belaunaldi gazteoi Internetik gabeko mundua irudikatzea kostatu egiten bazaigu ere, orain gutxi arte hala izan da. Giza harremanak aldatzen ari diren bezala, kazetaritza egiteko modua bera ere eraldatu egin da. Kide beterranoek oroitzen dutenez, egun posta elektronikoz unean bertan bidaltzen diren informazio eta kronikak, eskuz idatzita bidali eta erredakzioan mekanografiatu behar izaten zituzten, edo geroago, disketeetan helarazten ziren erredakziora, autobusean bidaliz Euskal Herriko txoko ugariatik. Albisteak gertatzen zenetik argitaratzera, *tempoak* beste batzuk ziren; zer esanik ez astekari bat ateratzen zuen erredakzio batean.





Ez dira alperrik bete bi hamarkada ARGIAk sarean leihoa irekiz, etxe barruan dena aldatzen hasi zenetik. 1997an *Ttipi Ttaparekin* batera euskarazko kazetaritzaren bidea urratu zuen sarean, Euskal Herriko erdal hedabide handi gehienek baino lehenago, Internetek sektorean oraindik eztabaida eta errezero handiak sortzen bazituen ere. Internetek papera hilko al zuen? Nola eutsi ekonomikoki proiektuei?

ARGIAren helburu nagusia zabalkundea izan denez, *online* edukiari giltzarraparik ez jartzea erabaki zuen hasieratik. Astez aste etxetara heltzen ziren aldizkariak modu irekian eskuragarri jartzeko aukera ematen zuen webguneak, baita aurrez digitalizatutako 1963tik 1996ra bitarteko ehunka elkarriketak ere. Modu horretan, harpidedunei *online* zerbitzu osatuago bat ematea eta aldizkaria kioskoan nekez erosiko zuen publikoarengana heltzea zen helburua. Hala ere, zailtasunak handiak ziren, ARGIAk sarean bete behar zuen funtzioa eta ekonomikoki eusteko moduko planteamendu bat aurkitu beharra zuen, inbertsioari nola-bait buelta emateko.

2002an webgunea ixteko zorian egon baziren ere, galdera bat nagusitu zen Lasarte-Oriako erredakzioan: "Posible al da ARGIAren komunikazio proiektua Interneten egon gabe?". Ezetz erabaki zuten, eta ordutik 2017ra, pauso txikiak emanez heldu da proiektua.

ARGIAren lanerako gakoak

Erreportaje honen asmoa ez da hogei urte hauetan sarean egin diren proiektu eta pausoen errepaso kronologikoa egitea, baizik eta Internet nola ulertzen dugun partekatzea, aurrera begira lanean zein oinarriekin ari garen azaltzeko.

Kazetaritza independentea: Banketxe, multinazional eta alderdi politikoen menpeko hedabideen kontrapuntuan,



bizi dugun mundua ezagutu eta interpretatzeko gakoak ematen saiatzen gara. Aktualitatearen narrazio koherente bat josten goaz, herritarren kezka eta interesak erdigunean jarritz, bote-re elitistak beharrean.

Funtzio soziala: Agenda propioa lantzeaz gain, gure komunitatearen intereseko gertaerei jarraipena egiten diegu. Horretarako, gai ugariren inguruan biltzen diren herritarren eztabaida eta ekimenei leku egiten saiatzen gara, beste hedabide gehienetan ez dutela lekurik jakitun.

Baloreak praktikara: Lantzen ditugun gai asko ARGIAk bere egiten dituen balore eraldatzaileak dira, eta beraz, enpresan eta langileon eguneroko funtzionamenduan praktikan jartzen saiatzen gara.

Abiadura eta formatu ugari: Internetek erritmo azkarra eskatzen du, eta paperean ateratzen ditugun aldizkariak logika propioa dute. Sarea erritmo aldetik frenetikoia izan daitezkeen bezala, astekariak, Larrunek eta Aktualitatearen Gakoak-ek informazioa beste sakontasun batez lantzeko arnasa eskaintzen dute. Hala ere, Internetek guztia azkartu duela ukaezina da.

Kultura libre: Gurea bezalako hizkuntza txiki batean, eduki sortzaile garen heinean, elkarlan librea hobesten dugu. Creative Commons lizentziapean banatzen ditugu gure eduki guztiak, beste hedabide

1997. urteaz geroztik, eboluzio nabarmena izan dute webguneek mundu zabalean. Irudian hasieran Sareko Argia zena, gero ARGIA.com eta gaur egungo ARGIA.eus-en aurrekaria. Garapen teknologikoak ahalbidetu hala, geroz eta informazio gehiago partekatzeko aukera izan dugu hedabideok, konexioek hala ahalbidetu baitute. Azken urteetako filosofia: ARGIA.eus-en azalak erakusleho izan behar du, azpialaetan biltzen den informazioa eskuragarri jarritz.

edo eragileek gure edukiak zabaltzen dituztenean poztzen gara, eta CC-BY-SA lizentzia duten hedabideen edukiei zabalpena ematen saiatzen gara. Hala ere, erakunde publikoek Interneteko diru laguntzak webguneen estatistiken arabera emateak –beste faktore ugari kontutan hartu gabe– zaildu egiten du euskarazko hedabideek beren informazioa ahalik eta gehien zabaltzea nahi izatea –eragiteko gaitasuna txikituz–, norberaren webguneko bisiten kopurua kezka iturri baita. ARGIA, kasu honetan, gure informazioaren hedapenari ematen diogu lehentasuna, nahiz eta praktika batzuek ez ekarri webgunera bisitarik.

Euskara ardatz duen proiektu eleanitza: ARGIA euskaraz egiten den proiektua da, hizkuntzaren normaltasunaren aldeko eragilea. Horri sekula indarririk kendu gabe, sarea informazioa ahalik eta hizkuntza gehienetan emateko plataforma bikaina dela uste dugu. ARGIA English kanalean Euskal Herriko informazioa ingelesez ematen dugu, eta nazioartean elkarlanean aritzen garen hedabideetan sarri argitaratzen dituzte ARGIAko edukiak beste hizkuntzatan, Espainiako Estatuko *El Salto*, Herrialde Katalanetako *La Directa* edo Galizia-ko *Sermos Galizan* kasu. Noiz edo noiz esperimenduak egiten ditugu: Korrikaren harira idatzi genuen erreportajea, euskaldunok hizkuntz komunitate gisa mendeetan Espainiako eta Frantziako Estatuen partetik jasandako errepre-
sioa kontatzen duena, 39 hizkuntzataraz itzuli genuen herritarrok auzolanean, gure ahotsa mundu osora zabaltzeko bidea jorratuz.

Eduki multimedia: Bideo solteetatik hasi, eta *Hitzetik Hultzera*, *Beranduegi*, *Damutuko Zaizute* edo *Zautela* web

WEBGUNE BERRIA ABENDUAREN 4AN

Euskararen Nazioarteko Egunaren biharamunean, abenduaren 4an, webgune berria aurkeztuko dugu. Hauek izango dira berrikuntza nagusiak: ARGIA.eus-en edukiak hobeto aurkeztea diseinu berrituarekin. ARGIAk Euskal Herriko mugimendu eta elkarten ekimen eta irakurketek ikusgarritasun handiagoa emateko *Komunitatea* atala sortu dugu. Kolektiboek erregistratzeko aukera izango dute, eta bertan beren albiste eta artikulua eskuz sartu, edo bestela, beren webgune edo blogean euskaraz publikatzen badute, RSS helbidea jarrita, ARGIAren webgune berriak era automatikoki hartuko ditu informazioak. Kolektiboek beren webguneetan argitaratzen dituzten informazioak ARGIAren ere ikusgai egongo dira.

Webgune berriarekin, lehenago ARGIAren produktuak erosteko aukera ematen zuen “Online denda”, “Azoka” bihurtuko dugu. Bertan, edonork izango du nahi duena salgai jartzeko aukera, baita etxean egindako edo bigarren eskuko gauzak ere. Eta hurrengo urtearen hasieran, Azokak bestelako harreman bat ere sustatuko du ARGIA Jendearen artean: komunitateari zerbait ematekoa, eta beraz, komunitate-
tik hartzekoa, tartean inolako diru eta objektu trukerik gabe. Eman eta hartu, hori baita ARGIA Jendeak elkarren artean, ARGIA proiektuaren bidez izatea nahi dugun harremana.

telebista saioetara bide egin dugu. Horrez gain, euskaldunok sortzen goazen ikus-entzunezko materiala Interneteko unibertsotik hartuz biltegi funtzioa betetzen duen Multimedia kanala eraikitzen ari gara. Bertan 2.500 erreportaje, elkarrizketa, dokumental, hitzaldi, bideo herrikoi, film labur eta beste baino gehiago topa ditzakegu.

Proiektu integrala: Paperak sarea elikatzen du eta sareak papera. Astekari bat, webgunea, *Larrun* hilabetekaria, *Aktualitatearen Gakoak* urtekaria, *Bizi Baratztea* edo *Zuloan* gisako liburuak ekoizten ditugu. ARGIA Jendeak, bere ekarpen ekonomikoarekin proiektu osoa bultzatzen du, ez du produktu jakin bat, astekaria adibidez, “erosten”.

Txikitik eragiten: Egungo egoera politiko eta ekonomikoak kezkatuta, beti pertsonak erdigunean jartzen dituzten baloreak bultzatzen saitzen gara, gure txikitasunetik.

Urtebetean 1.000 ARGIA Jende berri gehiago

Ondorengoa zioen Pello Zubiriak 2007an, ARGIAk sarean 10 urte bete zituelako egindako bideo-erreportajea. “Txikia den kultura batean, talde profesional txiki batek konpetitzeko beste aukera batzuk dauzka Interneti esker. Ez dio mundua konpontzen, baina aukera berriak eman bai, baldin eta lanerako talentua, adorea eta gogoaz gain, aukera horiek baliatzen asmatzen badu”.

Kataluniako efektuak lagunduta, urriko datuak ARGIAren historiako onenak izan dira. Webgunean hilabetean 213.869 bisitari izan ditu ARGIAk Google Analyticsen arabera; Facebooken denbora tarte berean 1.980.323 lagunengana heldu gara lotura, argazki edo

Abenduak 2 | Beasaingo Gernika pasealekuko frontoian

**TXUKU
MUTXU**

... zatoz hiztunen trenera

bideoekin; Twitterren 4 milioi erreproduktiotik gora lortu dituzte @argia-tik bidalitako txioek –erredaktore bakoitzak bere kontutik bidalitako ARGIAko edukia kontuan hartu gabe–; Instagramen pixkana abiada hartzen ari gara eta Telegramen Euskal Herriko hedabideen artean kide gehien dituen taldea izaten jarraitzen du ARGIAk 1.200 lagun baino gehiagorekin.

Interneten ARGIAk egindako lanak ordaina dauka: gero eta ARGIA Jende gehiago gara. Iazko abenduan harpidetza eredu aldaturaz geroztik, urtebetean mila kide berri batu dira proiektua ekonomikoki bultzatzera. Garai bateko kiderik baikorrenek ere nekez irudikatuko zuketeko egoera.

Lantaldean lanean gogor jarraitzeko ilusioa nabari da, oso garbi izanik dena ARGIA Jendearen indarrari esker dela posible. Kazetaritza eginez, txikitik eragiten jarraitzeko konpromisoa daukagu, informaziorik gabe ez dagoela demokraziarik sinetsita. Hedabide independenteen garrantzia aldarrikatzen dugu eta informazioaren alorrean ere burujabetza bultzatu nahi dugu. ■

bagera

Donostiako
Euskaltzaleen Elkartea

Hernani kalea 15, behe. 20004 Donostia
☎ 943 005 074 · bagera@bagera.eus
www.bagera.eus

ZERUKO ARGIAK SAREKO ARGIA



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Duela 20 urte 1997 hartan ARGIAk Interneten burua erakutsi zuenean, munduan present egoteko leiho handi berri bat estreinatu zuen. Orain neoliberelek (baita aurrerakoiz beztituek ere) ahotik kendu ezin duten “aukera-leiho” erraldoi bat zen guretzako Internet, baina aldi berean bazen aurreko 20 urteetan digitalitatearen alorrean egindako lanen emaitza ere.

Teknologia digitala tresna erakargarria zitzaigun ARGIA jendeari bai gure produktioaren atal ahalik eta gehienak gure esku hartzeko –bide batez bizimodua irabaztea lortuz– baita konkurrentzian sartu ahal izateko gurea baino askoz hizkuntza handiagoetan gurea baino askoz hedabide ahaltsuagoak direnen artean.

1980an fraide kaputxinoen jabegoko Zeruko ARGIA hura kooperatiba bihurtuta eskuratu zuen lan talde sasoikoak teknologia berriak bereganatzeko hautua egin zuen euskara hutsezko prentsa euskaltzale, ezkertiar eta abertzalea indartzeko. Horrela egokitu zitzaigun mundu analogikotik digitalerako urratsak oso goiz ematea, disko gogorrik gabeko lehen ordenagailutik hasita. Harpidedunen kudeaketa, gaurko gazteek zer den ez dakiten (edozein edizio programak egiten ikusi baitute betidanik) fotokonposizioa eta bere garapena, argazki analogikoetatik digitaletarako jauzia, orrialde osoen moldatzea gero... ARGIA eta honen babesle nagusiak izan diren Apika, Antza, Adur, Ametzagaina,

iAmetza eta enparauetan aritu diren dozentak lankideek zeharkatu dute –aldi batez edo prozesu osoan– Olivetti idazmakina mekanikoetatik kazetarien edukiak telefonoz mugikorretan ezartzea bitarteko abentura harrigarri hau.

Egia da 1997an aski goiz iritsi ginela Internetera, eta hasieratik jarri genituen eduki batzuk libre Internet iruditzen zitzaigun erakusleho erraldoian –aurretik CD-ROM formatuan plazaratutako ARGIAren elkarriketen artxibo historikotik abiatuta segituz aurrerantzean Internetarako ere diseinatuta joango ziren produktu guztiekin– gero eta eduki gehiago eskainiz eta beti libre. Diru publikoz lagunduta sortutako eduki guztiak herritar guztien eskueran libre izan behar dutela sinetsita, batetik, baina baita gaiontar larre metzeko kazetariok baino gehiago zekiten lagunek hala ikusten zutelako etorkizuna ere.

Euskal prentsaren Paleolito aroan hasitako gazteei azaltzeko nola genbiltzan gu Mesolitoko Internet hartan, arkeologia industrialean aditu baten laguntza beharko genuke. Ziurrenik ez dio askorik axola, ordainetan gaur Internet bidez munduko hizkuntza handietako hedabideen artean konkurrentzian bizitzen saiatzeko lankide gazteak baitauzkagu, digitalitatean jaio eta heziak, euskaraz bizitzeko eta mundua ulertzeko informazioak sortu eta zabaltzeko gaur erabilgarri dauden tresnak erabiltzen dakitenak. 1997 hartan bezala, Ametzagaina Taldea osatzen duten kooperatibetako lankideen babes eta guzti. Horrela bai merezi duela nabigatzen jarraitzea.

Tolosa euskaldun berriarekin



Plaza Zaharra, 6-A · 20400 Tolosa
☎ 943 697 453 · euskara@tolosa.eus
www.tolosa.eus

TOLOSA

Euskararen Nazioarteko Eguna

Bilbon euskaraz



Gu ere bertsotan
Bertsok eskoletan



Galdeketaun
Gazte lehiaketa



Ikusi eta ikasi
Ikuskizun zirkuitua



Zer dara Bilbo?
Euskara erabiltzeko ekimenak



Euskararen dimentsioa
Sentiberatze kanpaina



Bilboko euskaltegiak




Mikoleta
Eskolarteko ipuin lehiaketa




Ikusten duguna gara
D ereduaren alde




Harrapazank
Gazteentzako aukera




Biribilko
Komertzioan ere euskaraz



nahidudalako.eus
Ikasketak euskeraz jarraitu



BertanBilbo
hiriburua eta euskera



Zinema euskeraz

B

AGUR ETA OHORE ADIERAZPEN ASKATASUNA

Adierazpen askatasunaren mugei buruzko eztabaida gosea baino zaharragoa da. Ezin konta ahala iritzi daude, gaia filosofiaren mailaraino eramanez. Espainiako erregimenean, ordea, ez dago zalantzarako tarterik. PPren eskutik, arauz –Mozal Legeak– eta epaiz josten ari da autozentsura ideologikoa. Gupil errepresiboaren azken itzuliak Andeka Jurado harrapatu du: Twitterren bertxiotzeagatik lehen zigortua da.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Axier Lopez

@axierL

2014ko apiriletik 2016ko apirilera egin-dako lau atxiloketa saiok osatzen dute Armiarma operazioa; orotara, 77 lagun Twitter eta Facebooken terrorismoa goratzea leporatuta. Denak ezkertiarak eta asko euskal herritarrek dira. 33 urteko Andeka Jurado barakaldarra sarekada horretan atxilotu zuten 2015eko maiatzean. 2016an Espainiako Auzitegi Nazionalak ezarri zion 18 hilabeteko espetxe zigorra eta 10 urteko inhabilitazioa berretsi du orain Auzitegi Gorenak. Eta beraz, norberak sortu ez duen mezu bat zabaltzeagatik espetxera joan daitekeen lehen pertsona da. PPren gehiengo absolutuaren osteko garaiotan, aurrekari juridikorik ez duen kasu honek ederki erakusten du adierazpen askatasunaren mugak non dauden: zigor epaitegietan.

Bi bertxio, txio bat eta bideo bat

“Zigortu naute lau txio zabaltzeagatik eta horietan nik idatzitako bakarra ‘Agur eta ohore losu’ izan da. Lau hitz horienatik urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri didate”. Andeka Juradok aipatzen dituen txio horiek 2015eko urtarrilean zabaldu zituen, losu Uribetxebarria preso gaixoaren heriotzaren testuinguruan.

ETako kide ohiari Arrasaten egin zioten omenaldia publikoa eta legezkota izan zen eta arazorik gabe burutu zuten lagun eta senideek. Halere, omenaldi horren irudi batekin, Uribetxebarriaren aurpegiarekin eta “agur eta ohore” leloarekin osatutako kartel bat partekatzea –Amnistia ta Askatasuna taldeak egindakoa– izan da Jurado zigortzeko arrazoia.

“Terrorismoa goratu ez zuen ekitaldi baten kartela bertxiotzea terrorismoa goratzea bilakatu dute”, dio haserre Juradok. Twitterren aritzen den edonork badaki bertxiotzeak ez duela, berez, mezu horrekiko aldeotasun edo kontrakotasunik adierazten, zabaldu egiten duzula esan nahi du bakarrik, zernahi dela helburua. Halere, Juradok, argi eta garbi adierazi zion epaileari, baietz, nahita zabaldu zuela kartel hori. “Iosu agurtu nuen Twitterrez nire kidea izan zelako; biok kartzelan ginela, biok ginelako Euskal Preso Politikoen Kolektiboan. Joaten diren pertsonen agur eta ohore esatea erabat normala da Euskal Herrian, baina Madrilan hori perbertitu egin dute”.

Txioekin batera, Youtuben 2007tik ikusgai dagoen “Euskal Herria Resistance” bideoa zabaltzeagatik ere zigortu dute Jurado. Euskal Herriko eta Irlandako gatazka armatuen eta kale borroken irudien bilduma da. “Gure herriko historiaren gertakizunak dira horiek denak,



nik ez ditut igo eta eskubide osoa daukat horiek zabaltzeko, Twitterren beste erabiltzaile askok egin duten gisan”, kexu da Jurado. Beldurra eta autozentsura hedatzea dutela helburu azpimarratu du, eta epaiketari agerian geratu zela: “Umeen pornografiari buruzko bideo bat sareratuz gero, bideogilea epaiztearekin batera, zer da epaileak eskatzen duen lehen gauza? Delitua, bideoa, saretik ezabatzea. Bada, nire kasuan, delitutzat jo dituzten bideoak eta hiru txioak ezabatzeko agindurik ez dago, egun edozeinek ikus eta bertxio ditzake. Argi utzi dute bilatzen dutena”.

Epaia dio mota horretako edukiak zabaltzeak eragin dezakeen mina saihesteko zigortu dutela. Halere, beste zerbait pentsatzeko zenbait datu ere badaude: txio horiek zabaldu zituenean Juradok 120 jarraitzaile zituen Twitterren eta egun 2.500, Juradoren atxiloketaren harira “Agur eta ohore losu” mezuak errepikatu ziren eta “Euskal Herria Resistance” bideoak 25.000 ikustaldi dauzka orain. Juradoren mezuen hedatzea galarazteko asmoz agindutakoa bada zigorra, helburua ez duela lortu dirudi. Horrez gain, ezarri duen aurrekari penalak espetxeko ateak ireki dizkio sare sozialetako milaka eta milaka erabiltzeri.

Almeida abokatu talde espainiar eza-gunak horrela laburbildu du Juradori



Andeka Juradoren sarekada berean atxilotu zituzten kartzelan hilabete bete duen Alfredo Ramirez, lehen txiolari preso, eta hiru epaiketa aurretik dituen La Haineko kazetari Jorge Correa "Boro", besteak beste.

ezarritako zigorra: "Txio batengatik norbait zigortzea, intentzionalitatea kontuan hartu gabe eskubide penalarri iseka egitea da. Bertxio batengatik zigortzea inteligentzia iraintzea da".

Kontrola sare sozialetan?

"Nik ez ditut defendatuko faxismoa edo matxismoa, baina haien iritzi nazkagarriak esateagatik ez dut inor espetxera bidaltzea nahi, borroka ideologikoaren bitartez garaitu nahi ditut, ez epaitegie-tan", dio Juradok. Muga bakarria mehatxua dela dio eta, hortik aurrera, edozer esatea libre da; "ez bazaizu gustatzen, emaiozu buelta dialektikoki".

Euskal gatazkarekin lotutako kasuak askotan baliatu ditu Espainiako erregimenak eskubide murrizketak gizartearen aurrean justifikatzeko. Juradok argi du hori ez dela kasualitatea gaur egun ere. "Armia operazioan atxilotuta-ko asko ezkerreko militanteak dira eta kalean Poliziaren jazarpena agerikoa da zenbait esparru politikoren aurka; sare sozialetako jarduna aitzakia baino ez da pertsona batzuk zigortzeko". Horretarako, barakaldarraren ustez, "dena da ETA teoria ondo datorkie, adierazpen askatasunaren aurkako astakeria hauek justifikatzen saiatzeko". Atxilotu aurretik Poliziaren jarraipenak izan zituela salatu du eta bere jardun militanteare-

kin lotu du, "ez dut uste inor jarraituko dutenik 120 jarraitzaileko Twitter kontu batean idazteagatik".

Halere, euskaldunak ez gabela bakar-rak azpimarratu du, Estatuko beste per-sona batzuen egoera gogoan izan du. "Adibidez, hor dugu Pablo Hasel rap kan-taria, urte luzez, nola edo hala, espetxe-ratu nahi dutena edo hiru urteko espetxe zigorra ezarri dioten Valtonic, abesti ba-tean Espainiako erregea iraindu duela-koan. Kristorena da egiten ari direna".

Auzitegi Nazionalaren zain

Juradok aurrekaririk ez badu ere, es-petxeratzeko eskatu du fiskalak. Orain Auzitegi Nazionalako epailearen esku dago erabakia.

Kasua Epaitegi Konstituzionalera era-mango dute eta hortik Estrasburgora. Halere, ez du fede handirik bide horre-tan. "Konstituzionala PP da eta egun-go Europa, eskubideak babesten baino horiek urratzen da txapeldun". Salaketa ekimen ororen aurrean eskertuta azal-du da Jurado, baina "biktimismoan erori gabe", egoeraren gordina ohartaraziz amaitu du elkarrizketa. "Espetxe bar-ruan aurkituko dudanak ez nau beldur-tzen, kanpoan geratuko denak kezka-tzen nau, gehien bat familiaren egoerak: 4 hilabeteko eta 2 urte eta erdiko gure bi semeak aita barik". ■



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako

☎ 943 650 253

www.tolosakobabarruna.eus

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



tradebi@tradebi.com





Roger Español

“Gomazko balak mundu guztiari debekatzea nahi dut, ez soilik Mossoei eta Katalunian”

Urriaren 1eko Kataluniako autodeterminazio erreferendumean begi bateko ikusmena galdu zuenetik lehen aldiz mintzatu da publikoki Roger Español. Espainiako Polizia Nazionalak tiro egindako gomazko bala batek jota bizitza aldatu diote.



David Bou

@dvdbou

ARGAZKIA: VICTOR SERRA / LA DIRECTA

Bartzelonako Ramon Llull eskolan gertatu zen. Espainiako Poliziaren dispositibo zabal bat bozketa oztopatzeko hautestontziak eta botopaperak kentzera joan zen. Agenteen esku-hartzearen ostean, gomazko bala batek aurpegian jo eta astebetetik gora egon zen ospitaleratuta. Kataluniako Parlamentuak munizio hau debekatu egin zuen –herri presioaren ondorioz– 2014ko apirilaren 30ean, baina horrek ez zuen ekidin Espainiako Poliziak erabiltzea, betoak Esquadra Mossoei bakarrik eragiten baitie. La Directak eskusiban hitz egiteko aukera izan du berarekin.

Zerk bultzatuta joan zinen urriaren 1ean Ramon Llull eskolara?

Espainiako Gobernuak Kataluniarekiko egin duen bidea ikusi nuen, eta boto eskubidea eta biltzeko eskubidea ukaezinak direla uste nuelako bertan egon nahi izan nuen, nire presentzia baliagarria izan zitekeelako han.

Demokraziaren alde nago eta niretzat boto eta biltzeko askatasuna da demokrazia, bakoitzak pentsatzen duena modurik onenean esan dezala. Une horretan, bakoitzak uste zuena bozkatzea zen modurik onena. Batez ere boto eskubidea defendatzera joan nintzen hara. Lehentasunezkoa zen botoa eman eta erabakitzeak aukera izatea.

Zure kasu zehaztetik harago, gertatu zena gerta zitekeela uste zenuen orokorrean?

Ez nuen inondik ere pentsatu Poliziak modu horretan kargatuko zuenik, ez egon ez zen bestelako biolentzia bati erantzun gisa soilik, baizik eta botoa ematera joan nahi zuen jendearen aurkako errepresio gisa. Ez nuen uste biolentzia eta errepresioa maila horietara helduko zirenik.

Nola bizi izan dituzu prozesu independentistako urte hauek, nola pentsatzen zuen Rogerrek orain urte batzuk eta zer pentsatzen du egun?

Oso gazte nintzenetik, ez dut ez banderetan, ez mugetan sinetsi, baina dena aldatu egin da azken urteetan Kataluniarekin egin duten politika txarra ikusi ostean. Horrez gain, uste dut Espainian, uste dut trantsiziotik hona hartutako erabakiak nahiko mingarriak izan direla. Orain urte pare bat ez nintzen ez independentziaren aldekoa ez aurka, gehienbat nire gazte garaiko eta ondorengo bizipenengatik, pentsamendu anarkistaren bueltan ibili naiz, baina denborak aurrera egin ahala, Espainiako Estatuarekin kontsentsuzko irteera logiko batera heltzeko biderik ikusten ez dudanez, politika egiteko modu honetatik burua ateratzeko aukera bakarra alde egitea dela ikusi dut, independentzia bilatzea eta beste bide batzuk probatzea.

“Garbi esango dut, ni lehen ez nengoen independentziaren alde. Orain, politikoki, uste dut ezin dugula atzera egin”.

Ez zaitu beraz Espainiako jendearen aurkakotasunak mugitzen.

Bai zera! Kontrakoa, nik daukadan aurkakotasun bakarra Espainiako Gobernuarekin daukat, jendearen eta herriaren aurka inondik ere ez. Nik asko bidaia egin dut, musika taldeetan jotzen dut eta Espainia osoan eta alde guztietan ibili izan gara. Kanpotik etorritako familia eduki izan dut, nire bikotearen familia osoa andaluziarra da eta maitagarriak dira, ez daukat ezer Espainiaren aurka. Gustuko dut kanpora atera eta jotzea, Madrilera joatea eta jendeak nola erreakzionatzen duen ikustea, ongi pasatzea. Hau guztia ez da Espainiako herriaren aurka, Espainiako politikaren aurka baizik.

» “Hemendik aurrera gauzak beste modu batean ikusi behar ditugu, ez dut nahi nik neuk, ez Kataluniak kaka zahar honen parte izaten jarraitzerik”

Nolakoak izan dira gertatu zaizunarekiko erreakzioak, zerk lagundu zaitu eta indarra eman, eta zerk sentiarazi zaitu gaizki?

Nire inguruarekiko hitz onak baizik ez dauzkat. Jende guztia gainean izan dut, galdetu didate. Ni neu, estu sentitzera heldu naiz erantzuteko mezu asko nituelako, egin nahi bainuen, baina batzuetan pixka bat estresatzen nintzen. Oso ongi portatu dira nirekin, moduren batean edo bestean laguntzeko prest. Hedabi-

deei dagokienez, berriz, bi aurpegiak ikusteko aukera izan dut: salaketarako errespetuko kazetaritza batetik, eta erabat kanibala bestetik, edozeren gainetik pasatzeko prest, soilik argazki bila, sentsazionalista. Nire bikotekideak deika izan ditu sarri. Lehen egunetan, ospitalean kazetari bat baimenik gabe sartzen saiatu zen. Horrek eragin zuen ni are gehiago bakartzea, eta eskertu nuen.

Babes politikorik jaso duzu? Jarri al da inor zurekin harremanetan?

Ospitalean Ada Colauren bisita jaso nuen, zer moduz nengoen galdetzeraz eta Bartzelonako Udala prozesu judizialean sartuko zela azaltzeraz etorri zen. Toni Comín kontseilaria ere etorri zen, Osasun sailetik, nire egoeraz kezkatuta eta nolabait lagundu zezakeen bere burua eskaintzeraz... orain, zoritxarrez, ezingo luke. ANC eta Òmnium ere jarri ziren nirekin harremanetan, baita Stop Bales de Goma eta Ester Quintana ere, bere bizipena kontatzeraz etorri zitzaizkidan. Garrantzitsua izan zen niretzat, aurrerantzean egin beharko dudana biderako prestatzen lagundu baininduen. Gertatu zena gertatu ostean zer nolako indarra duen ikusteak asko animatu ninduen.

Zer esperantza daukazu eta zer lortu nahi duzu orain hasiko den auzibidearekin?

Ahaleginduko naizen gauza nagusia, nahi eta desio dudana, mundu guztia- rentzat gomazko balak debekatzea da, ez soilik Esquadra Mossoei eta Katalunian. Urriaren 1ean antolatu zuten polizia operazioa ere salatu nahi dut, Gobernu batek erabaki baitzuen hori guztia. Egin zuten makurkeria ikusarazi nahi dut, pentsa dezatela pixka bat horrela-

ko erabakiak hartu aurretik zer maila- tara heldu daitezkeen, bulego batetik egiten baitute dena oso urrun geratzen zaiela. Pertsona min egiteko moduko mailetara heltzen dira politikariek har ditzaketen erabakiak. Han jende asko geunden, niri gertatu zitzaizkidan beste edonori gerta zekiokkeen, gomazko bala asko egin baitzituzten tiro Ramon Llull eskolan eta hori ez da onargarria, bide honetatik ezin dugu jarraitu.

Egun horren ostean, zer aldatu da zure pentsamenduan?

Pertsonalki gauza asko aldatu zaizkit. Baliteke oraindik oso goiz izatea, dena oso beltz ikusten dut eta beste modu batean bizitzen hasi behar dut. Ziurrenik ohituko naiz horretara ere eta Ester Quintanak esan zidanez, itzuliko da dena normaltasunera. Oraingo ez da bueltatu, eta horretan nago, baina herri honetan politika egiteko moduz dudak ikuskera aldatu da batez ere. Ez zait bategere gustatzen. Urriaren 1ean marra gorri bat gurutzatu zela uste dut eta jada ez dago atzera bueltarik. Gerora, marra gorri gehiago pasa dituzte, Jordiak eta Gobernuaren parte bat espetxeratuta. Niretzat behintzat, egun horretan marra bat igaro zuten eta argi daukat ezin dela berriz ere gertatu. Hemendik aurrera gauzak beste modu batean ikusi behar ditugu, ez dut nahi nik neuk, ez Kataluniak kaka zahar honen parte izaten jarraitzerik.

Honen atzean helburu politiko bat bazuten, zurekin behintzat ez dute lortu.

Ez, nirekin guztiz kontrakoa egin dute. Garbi esango dut, ni lehen ez nengoen independentziaren alde. Orain, politikoki, uste dut ezin dugula atzera egin. ■



**LARRABETZUN,
EUSKARAZ BIZI**

www.larrabetzu.eus
udala@larrabetzu.eus

Facebook.com/Larrabetzu
Twitter.com/larrabetzuudala
Instagram.com/Larrabetzuko_udala



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**



Eneko Gorri

“Lapurdi kostaldean hirigintza ereduak hizkuntza politikak baino askoz eragin handiagoa du”

Eneko Gorri (Angelu, 1983) euskaltzale militante izateaz gain Biarritzko Herriko Etxeko euskara teknikaria da. Lapurdi kostaldeko hirigintza ereduak euskal hiztunen bilakabidean duen eragin handiaz ohartarazi nahi izan gaitu: “Biarritzek hamarrez biderkatuko balu ere euskarari ematen dion aurrekontua ez luke eragin handia izango hemendik 50 edo 100 urtera”. Jendarte ereduak eredu, euskaltzale-izokinak ur xaloagoetara iritsiko direla sinesten du.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

BAB Baiona-Angelu-Biarritz eskualdeko euskara-datuak ondokoak dira: euskaldunak %8 eta kale erabilera %2. Zein go-goeta datorkizu datuok jakinda?

Ikusiz testuingurua zein den, hau da, hizkuntza gaitasuna hain da apala, hizkuntza paisaia nagusiki frantsesa, eta hiri eremua izateak dakarrena, hau da, anonimotasuna eta beste... %2 ia mirakulu txiki bat da, ez dakit nondik ateratzen den.

Asko iruditzen al zaizu?

Ez asko.

Ezagutza-erabilera proportzioan esan nahi nuen.

Hori da. Jakina da Baionan zein Biarri-



tzen euskal hiztunak testuingurua oso kontrakoa duela, lehen aipatu ditugun faktoreengatik, eta euskaraz aritzea espontaneoki karrikan ez da gauza naturala, beti da hautu kontziente baten emaitza, eta borroka pertsonal edo kolektibo baten ondorioa. Urrun gaude normaltasun egoeratik. Hala ere, ari gara hiztun gisa erosoago bizitzeko eta estres linguistikoa baztertzeko espazioak eraikitzen eta esango nuke duela 10-20 urte baino errazagoa dela gaur egun euskaldun gisa bizitzea BABen.

Euskararen aldeko jarrerak behera egin dute. Zenbat eta aldeko politika gehiago, aurkako erreakzioak indartsuagoak al dira?

Ez dakit. Segur dena da, eta kaxatx tean errango dut, gaur egun euskararen inguruan kontsentsu sozial bat eraiki dela, orain dela 15 urte ez zena.

Funtsezko galdera da ea kontsentsu hori paradigma aldaketa baten emaitza denez benetan edo denez garai zehatz bateko zerbait. Azkenean, duela hamar urte baizik ez gara hasi hizkuntza politikak garatzen eta hizkuntza politikak definizioz eraldatzaileak direnez, bortxaz iritsiko gara momentu batean krispazio puntu batera. Ez dakit euskararen aldeko jarreraren apaltzea krispazio puntu horren hasiera denez. Duela hamar urteko argazkia aldatu nahi dugu eta jendarte euskalduna, edo gutxienez elebiduna, eraikitzea goaz. Bortxaz izanen dira erresistentziak, inertiak.

Artezki begiratzan baditugu azkeneko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak jendeak dio ados dela bere seme-alabek euskara ikas dezaten, ados dira funtzio publikoan lan egiteko euskara ikasi behar dela, baina haien egunerokota-

» “Duela 25 urte Biarritzen haurren %1ek ikasten zuen euskara ikastetxean, 25 urte berantago %25ek ikasten du”

» “2050ean Baiona-Angelu-Biarritzen ez badugu euskara irabazia biziki zaila izanen zaigu Ipar Euskal Herrian irabaztea”

sunean euskara sartuko delarik hasten dira kontra izaten. Hedabide publikoetan, irradian eta telebistan, euskara gehiago txertatzearekin kontra agertzen dira. Hau hipotesia da, baina pentsa daiteke Ipar Euskal Herrian euskara duela hamar urte baino askoz gehiago toleratua dela, baina ez dugu oraindik lortu benetako onarpena.

Funtsezko eztabaida da gaur egun euskararen alde lan egiteko haizeak alde ditugula, eta hemendik hamar urtera ez dakigula alde edo kontra izango ditugun. Beraz, bi estrategia izan daitezke, edo aitzina goaz gauza asko egin behar delako eta gaur egun testuinguruak baimentzen duelako, edo kontsentsu soziala ez hausteko garatzen ditugun hizkuntza politika epelak egingo ditugu.

BAB Baiona-Angelu-Biarritz eremu des-konektatuena dela diozu. Zer esan nahi duzu?

Alde guztietatik dago deskonektatua; bai ezagutza datuen aldetik, bai erabileran, bai aldeko jarrerak, baita norberaren familiako historia ere. Hein batean, BABen garatzen diren hizkuntza politikak badute nolabaiteko artifizialtasuna. Ez goaz berriz sortzera desagertu den zerbait, baina hutsetik ari gara eraikitzen. Kanpotik Euskal Herrira bizitzera etorritako familia asko Lapurdi kostaldean kokatzen dira, BAB eremuan, eta haien historian ez dute euskararen aztarnarik, zerutik zerbait eskuratzen dute, haien seme-alabentzat egiten dute euskararen hautua. Ipar Euskal Herri osoan euskararen berreskuratzea gazte belaunaldietatik pasako da, baina BABen ez dugu familia transmisioaren indarra edo naturaltasuna, haurtzaindegiek eta eskolek transmititzen dute euskara %90ean kasik. Horregatik diot deskonexioa eta artifizialtasuna.

Horrek ez du erran nahi ez dugunik lortuko. Alderantziz, duela 25 urte Biarritzen haurren %1ek ikasten zuen euskara ikastetxean, 25 urte berantago %25ek ikasten du. Lortzen ahal dugu bide horretatik, baina kontziente izan behar gara ez dela Ipar Euskal Herri barnealdean bezalako lana eraman behar-ko, desberdinki egin behar dugu lan, egoera erabat desberdina delako.

BABek Ipar Euskal Herriko biztanleen herena du, 120.000 biztanle.

Gune estrategikoa da euskararentzat eta beste jendarte eredu batean sines-ten dugunontzat ere bai. Euskarari begira, hor bizi da masa kritikoa. Ohartzen gara Ipar Euskal Herriak bizi duela ur-

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Euskara eta hizkuntzen kudeaketa, kultura, aniztasun zein parte hartze gaietan kalitatezko aholkularitza


HIZKUNTZA
ZERBITZUAK


KULTURA
ZERBITZUAK


ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK


PARTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.eus

banizazio garai handi bat, eta pixkanaka BAB barneko lurretara sartzen ari da. Jendartearen deseuskalduntzea gero eta urrunago doa, garai batean Baiona, Biarritz, Angelu, Basusarri, Arbona, Bokale, Hiriburu ziren, eta orain Hazparnetik Luhusorako lurralde hori guztia deseuskalduntzen ari da. 2050ean euskara ez badugu BAB eremuan irabazia biziki-biziki zaila izanen zaigu Ipar Euskal Herrian irabaztea. Ez da erraza BAB eremua, baina hor jakatzen da estrategi-koki bataila handia.

Eta hau ez da batere gutxietea barnealdean eraman behar den lana, aldearantziz, esan nahi duena da lan asimetrikoa eraman behar dugula, ez dugu berdina eta ber baliabideekin lan egin beharko Amikuze eskualdean adibidez eta BAB eremuan.

Hirigintza ereduak hizkuntzan duen eraginaz hitz egin nahi duzu.

Jendeak, euskaltzaleek, aski barneratuta ez dutena da euskararen egoeran administrazio publikoan garatzen dituzten beste politika publikoek eragin askoz handiagoa dutela hizkuntza poli-

tikak baino. Adibidez, konbentzitua naiz gaur egun Biarritzek biderkatzen badu hamarrez euskarari ematen dion aurrekontua eta beste hoge langile hartzen baditu lan egiteko, hala ere, ez luke eragin handia izango euskararen egoeran hemendik 50 edo 100 urtera. Zergatik? Hirigintza ereduak, turismo ereduak, etxebizitza politikak, hizkuntza politikak baino askoz eragin handiagoa izanen duelako.

Biarritz batean adibidez, alokairuen prezioak hain handiak dira, non familiek ihes egiten duten, eskolak ixten dira eta ezin dugu gazte belaunaldiak kontatu euskararen berreskuratzeko. Biztanleria zahartzen da, kanpotik etortzen da, eta horrek badu eragin handi handia.

Hirigintza hemen ez da batere aipatzen eta auzi horretaz gogoetatzea premiazkoa da.

Orain azaldu duzun hirigintza eredu barnealdera zabaltzen ari dela diozu.

BABeko hiriak saturatuak dira, ezin da inon gehiago eraiki eta zer egiten dute promotoreek? Joaten dira pixkanaka -pixkanaka Uztaritzera, Hazparnera,

Itsasura, Luhusora. Hango euskaldunek erraten dute baduela sekulako eragina, baina diskurtso hori eramatea oso zaila da. Beraz, egin behar dugu molde bat kontzientziak pizteko.

BABeko militantea jabetzen al da nolako eremuan bizi den?

Militanteek BAB perimetroa barneratzea oso inportantea da, horretaz jendeari hitz egiten diogularik erraten dute, “bai, baina nik Euskal Herria dut ardatz, nik Ipar Euskal Herria, nik Lapurdi”. Ados, baina nire ustez, bada BABetik ihes egiteko gogo gure baitan, lurralde horretan inplikatzek erran nahi baitu joan behar direla konfrontaziora jendearekin eta ez dakit gaur egungo militantzia horretarako prest garenik. Hori ez diot euskara teknikari gisa, baina uste dut politikoki eta euskalgintzan gogoetatu beharko dugula. Gasteizen edo Iruñean, hiri handietan, eman duten gogoeta berdina egin behar dugu.

Onartu beharko dugu BABen bizi garenok izokinak garela eta beti korrontearen kontra ibili beharko garela, korronteak azkarrek direla. Adibidez, ni

BARAKALDO ANTZOKIA - 20:00
ABENDUAK 3

Barakaldo Antzokian
Kontu Kantari 2

Hartu gonbidapena!

Abenduak 3 13:00
Laenanaranja

BARAKALDOKO DANTZA, MUSIKA ETA EUSKARA TALDEEK ELKARLANEAN SORTUTAKO IKUSKIZUNA

DOAN

Bizkai

karola

Berango

Angelun bizi naiz, Baionan politizatu eta Biarritzen lan egiten dut. Beti izan naiz izokina eta beti izan dut kontzientzia hori. Izokina ez da sekula akitzen, beti joan behar du bururaino eta beti ibaian ibiliko da korrontearen kontra, baina egun batez iritsiko da ur xaloagoetara. Horretarako milaka izokin ahaldundu beharko ditugu ondoko urteetan BABen.



Erakunde publikoen hizkuntza politikak, euskalgintza, herritarrak, nola egituratu? Bi adibide emango dizkizut: Mintzalasai egitasmoa elkarlanean egiten duzue, eta aktibazio sozialari lotutako azaroaren 27tik abenduaren 3ra arteko BAB dinamika euskalgintzak bultzatu du.

Ez da kasualitatea eta gogoeta kolektibo baten emaitza da. Duela zazpi urte Mintzalasai sortu genuelarik Biarritzen, diagnostiko batetik sortu zen. Euskalgintza sektorializatzen ari zen, helduen irakaskuntza, ikastola, haurtzaindegia, aisialdia, kultur elkarteak... eta profesionalizazio horrek atomizazioa ekarri zuen eta haien artean harreman gutxi zen. Ideia asko zituzten eta baliabide gutxi. Udalerriek baliabide asko eta aursardia gutxi.

Mintzalasai sortu zen bakoitzaren indarguneak mahai gainean pausatzeko. Elkarrekin zituzten ideia ausartenak eta mobilizazio gaitasuna, eta administrazioak lan egiteko baliabideak ekartzen zituen, bai diruz, bai legalki, bai azpiegitura aldetik, eta abar. Konplizitate handia

sortu da Mintzalasairi esker sei urtez eta aurten Biarritzetik BABera pasa gara.

Aldiz, BAB eremuan bizi garen euskaltzaleoi iruditu zaigu aktibazio soziala ezin zela instituzioetatik eraman, ezta instituzioen laguntzarekin ere. Oraingoz bederen hala jokatzeari pentsatu dugu. Lan horizontala egin behar genuela uste genuen, kolektiboki, eta sigla guztietatik kanpo. Hautu bat izan da, beharbada ez da egokia.

Aktibazio sozialari dagokionez, BAB dinamikan azaroaren 27tik abenduaren 3ra arte Donostiako Egia auzoan egin zen moduko egitasmoa egin duzue. Lasarte-Oriako eredura gerturatu zarete, baina zuen inbardurekin.

Guk ez dugu ezer asmatu, besteek utzi-tako arrastoetatik eraiki dugu. Hala ere, ez dugu erregeta guztia hartu nahi izan, eraikiz egiten baita bidea. BAB dira hiru hiri nagusi herriko plazarik ez dutenak, horietan bizi dira hamarnaka mila pertsona, baina ez dute Euskal Herrian

ezagutzen ditugun hirien konfigurazioa. Bertako militantek harreman txikia dute haien artean. Lau ikastola badira BABen eta ez dute batere harremanik.

25 pertsonako talde eragilea osatu dugu, denak euskaldunak, belaunaldi desberdinetakoak, genero aldetik ere aniztasuna bermatuz, perfil soziolinguistikoa desberdina duten pertsonak. Askok erran dugu BAB dinamika sortzea guretzat ere autoterapia kolektibo ederra izan dela, zeren denek nahi dugu

euskaraz bizi, baina denek ez genuen urrats hori egiten. Lau hilabeteko autoterapia eta gero, jadanik hasiak ginen ahalduntzen, BAB dinamika hasi aitzin.

Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak 2018an antolatuko duten Euskarak 365 egun egitasmoa omen duzue gogoan.

2018an, hamaika egunetan, Euskal Herri osoan nahi baditugu milaka eta milaka hitzun ahaldundu eta aktibatu euskara praktika dezaten utzi behar zaio lurralde bakoitzari bere bidea egiten. Guk hastapenetik argi genuen: 2018ko azaroan egitasmo hau egingen bada Euskal Herrian, BABek egin behar du berea lehenik. Eta BAB izan behar da lehena, egin behar du Itsasu, Maule, Baigorri edo Garazi aitzin, ez bidea irekitzeko, baizik eta BABek egingen duena besteona baino apalagoa izanen da. Guk egingo dugu orain eta amesten dugu bihar egitea Hendaiak, Senpereak, Sarak... eta Ipar Euskal Herri osoa prest izatea 2018rako. ■



*Euskara ari du Hernanin
Segi euskarari eusten!*



EUSKAL **HARGINEN** MATXINADA




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

San Lorenzo del Escorial (Madril), 1563. El Escorial monasterioa eraikitzeke lanak abiatu ziren, 21 urtez luzatuko zirenak. Eta lan horietan euskaldun askok jardun zuten, proiektuaren lehen arkitektotik hasita: Juan Bautista Toledo. Hark jarri zuen lehen harria, Pedro Toloşa aparejadorearen laguntzaz, hura ere euskal herritarra. Euskaldunen zerrenda luzea da (Labarrieta, Urkiza, Berriz, Barrutia, Alkiza, Barrena, Elorriaga...), batez ere harginena. Obraren nondik norakoak idatziz jaso zituen Frai Jose de Sigüenzaren hitzetan, eraikin hura altxatzeko ofizial harginena izan zen “lanik onena eta garrantzitsuenena”.

Eta haiena izan zen, halaber, eraikitze lanen pasadizo iskanbilatsuenena. Beti ere Sigüenzaren arabera, 1577ko maiatzean, El Escorialeko alkate nagusiak, Muñoz lizentziatuak, hainbat hargin bizkaitar atxilotu zituen “garrantzi txikiko delitu bat” medio. XVI. eta XVII. mendeetan euskaldun guztiei esaten zieten bizkaitar. Alkateak atxilotuak jipoitzeko mehatxua egin zuen eta, orduan, euskal harginak herriko gartzelara joan ziren “alkatea eta aguazilak hiltzeko asmoz”. Ez zuten asmoa bete, alkatea ondo ezkutatu zelako. Biharamunean, eraikitze lanak geldiarazi zituzten eta greba hasi zen.

Greba edo matxinada, 1963an ABC egunkarian Carlos Vicuñañ zehaztu be-



El Escorial monasterioa eraikitzeke lanak, Fabrizio Castello eta Rodrigo de Holandaren grabatuaren arabera. Lan horietan euskaldun asko aritu ziren, batez ere harginak.

HATFIELD HOUSE

zala: “Matxinada diogu eta ez greba, ez zelako lanari lotutako greba izan, El Escorialeko alkatearen aurkako benetako altxamendua baizik, ohore kontu batek eraginda, euskal noble eta kapare izanik, irainduta sentitu baitziren”.

“Gizon haien amorrua izugarria zen” Sigüenzaren arabera, eta alkateak atxilotuak askatzea erabaki zuen. Harginak lanera itzuli ziren.

Baina ez guztiak. Altxatutako hargin batzuek El Escorialetik ihes egin omen zuten eta Avilatik hamasei kilometrora, Norteko ferrokarrilaren bidean eta granitozko harrobi oparoen magalean, herri bat fundatu omen zuten: Mingorria.

Behin, granito bidalketa gortera garaiz iritsi ez eta Felipe II.a harrobi haietako kontramaisu Jose Txintxurretarekin bildu zen. Txintxurretak ez zekien gazteleraz eta ahal zuen moduan azaldu zion erregeari atzerapenaren arrazoia: “Mingorria, jauna!”. Harrobietako langileak gaixorik zeudela, alegia. Batzuek diote erregeari hitz horrek grazia egin ziola eta hala baitaiatu zuela herria. Beste batzuen arabera, pasadizoaren ondoren ingurukoak harginen “Mingorriakoak” esaten hasi zirela eta, azkenean, erabileraren poderioz, herriak izen hori hartu zuela. Edonola ere, egun, hargin matxinoek sortutako udalerriak oraindik Mingorria du izena. ■



Kafea ongarrri



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Kafezalea naiz, ezin uka. Dozena erdiren bat inguru hartuko dut egunero. Nire gustuko kafetxoa, kikaratxoan erditik beherako ttikia motxa gustatzen zait, egiteak hondakin mordoxka sortzen du egunero. Sortzen dut. Eta zer egin kafe hondar horiekin? Berrerabilera ekologikoa, ekonomikoa eta praktikoa beharrezkotzat dut. Etxekoena zuzenean luartzan ari den simaur pilara doa.

Coffea spp landarearen hazi ehoetatik egindako kafeak uzten duen hondarra ongarrri ederra da. Pittin bat azidoa da, simaur gehienak bezala, eta gustura hartuko dute inguruan azidozaleak diren txilarrak (*Erica spp*), errododendroak (*Rhododendron spp*), hortentsiak (*Hydrangea macrophylla*). Azken horren loreen koloreak bizitzeko pizgarria ere bada.

Luar pilan beste hondakin organikoekin nahasita irakinaldia sustatzen du. Zizareen lana azkartzen du, digestioan laguntzen die eta kafeinarekin bizkortu egiten dira. Luarra egiteko hondakin orekatua da, karbono/nitrogeno erlazioa 20 ingurukoa du (material onenek 25-30 izan ohi dute). Zuzenean lurreko ongarrri gisa ere erabiltzen da. Ha-



Pittin bat azidoa da kafearen hondarra, simaur gehienak bezala.

zitegietan, landare ttikiak landatzeko, lorontzietan edo baratzean lurrarekin nahasi eta askatzen dituen jakiak landareek erraz bereganatuko dituzte. Lurra harrotu egiten duenez hezetasun arazoak dituztenak edo motelegiak diren lurak oneratzin ditu, landareen sustraiei alde ederreko erraztasunak emanez, bai hazteko bai elikatzeke. Adibidez, errefauen (*Raphanus spp*) edo azenarioaren (*Daucus carota*) tokian jartzen bagara, eskuzabal hartuko dute kafe hondarrez ongarritutako saila.

Hondar horiek landareen aldamenean jartzen dituenik ere ezagutzen dut. Itxuraz kafeina ez da bare eta barraskiloen gustuko eta atzeratu egiten omen ditu. Ez omen ditu hiltzen, baina bai atzeratu. Agian kafeinagatik baino, bere hauts egituragatik izan daiteke, haren gainean herrestan eroso ezin ibili direlako. Bateria batek katuak uxatzen dituela ere aipatu izan dit. Katuak ez du kalte handirik egiten baratzean, baina lurra lardaskatuz landare txikiak honda ditzake. Kafe hutsa katuari! ■

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



AZPEITIKO ELIKAGUNEA

Baserri eta kalearen arteko zubi



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: ELIKAGUNEA



Azpeitiko Udalak azoka plazaren inguruan abiatutako parte-hartze prozesuan du oinarri Elikagunea proiektuak. Prozesuari jarraipena emanez, eskualdeko hiru gaztek Artxara Kooperatiba Elkarre Txikia osatu eta Elikagunea aurrera eramateko ardura hartu dute. “Bertako elikagaiak sustatzea da helburua, prezio eskuragarrian eskainiz eta, era berean, kontsumitzaileak kontsumo jasangarriaren inguruan kontzientziatuz”, azaldu du Xabi Izagirre Uranga kooperatibako kideak ekimenaren aurkezpen bideoan.

Elikadura burujabetza helburu

Azpeitia erdigune hartuta, 150 km-ren bueltan ekoizten diren elikagaiak soilik eskainiko dituzte Elikagunean. “Espazio horren barruan hainbat gune egongo dira: heziketa gunea, dastaketa gunea, sukaldea, Basque Label harategia eta janari denda”, dio Izagirrek. Lehen sektorea indartu eta landa eremua bizirik mantendu nahi dute, eta horretarako garrantzizkoa da azoka plaza bizi eta dinamikoa izatea.

Horrelako guneak duen garrantziaz dihardu Aiora Etxeberria Iturralde

ekoizleak aurkezpen bideoan: “Elikagunea ez da guretzat erakusleiko soil bat izango, gure produktuak aurkezteko leku bat izango da, bezeroekin zuzeneko harremana izateko toki bat, bertatik bisitak antolatuko dira baserrietara... Aukera ezin hobea da guretzako”.

Elkarlana oinarri

Talde-lanean eta elkarlanean oinarritutako antolaketa izanen du guneak. Eragile, kontsumitzaile nahiz ekoizleen parte hartzea bermatu nahi dute hainbat modutan. “Kooperatibako bazkide eginez edo lantaldeetan parte hartuz, asmoa da herritarrei proiektuan eragiteko ahalmena bermatzea”, diote.

Elikagunea martxan jartzeko diru bilketa abian jarri berri dute goteo.org plataforman. Elikagaien horniketakarako beharko dituzten 3.500 euro da lortu beharreko gutxienezkoa, eta beste 4.000 eurokoa da diru bilketaren bigarren txanda, gehigarria, beharrezko tresneria eskuratzeko erabiliko luketena.

“Elikagunea bezalako proiektuak aurrera ateratzea garrantzitsua da gazte jendea lehen sektoreko lanetara animatzeko. Lehengo bideetatik zer eginik ez

dagoela ikusi dugu, bada orduan bide berriak bilatu beharko ditugu”, dio Etxeberriak. Geroz eta gehiago dira bide berri horien bila dabilen ekoizleak. Beharrezkoa da, ordea, bide horiek ekoizleekin batera egiteko prest dauden kontsumitzaileak ere martxan jar(rai)tzea. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Azaroak 30: Berrobi Abenduak 1: Bermeo

19:00etan Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 2: Beasain

Azokan Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 3: Errezil

10:00etan Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.



Bertako eta garaiko kalitatezko produktuak eskuratzeko zatoz Beasaingo azokara



GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"FEMINIZIDIOA EUSKADIN ETA NAFARROAN. 2010-2015"

1

Zer esan zuen prentsak eta zer justiziak eraildako emakume haien kasuan?

2010 eta 2015 urteen artean, emakume izateagatik 33 neskatila eta emakume erail zituzten EAEn eta Nafarroan. Mugarik Gabe GKEaren argitalpen honetan feminizidio horiek jaso, komunikabideek kasuei emandako tratamendua analizatu eta justiziak zein erantzun eman zien aztertu da. Era berean, hobekuntza proposamenak egiten dira, hala komunikabideei begirakoak, nola justiziarekikoak. Lan honek emakume guztien memoria historikoa erakitzeke tresna ere izan nahi du.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



MUGARIK GABE

www.mugarikgabe.org

#feminizidioa
#autodefentsafeminista
#azaroak25
#justizia

Abenduko sariak

1



Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan
2 liburu

2



Hernaniko eta inguruetako anfibioak eta narrastiak
3 liburu

3



Energia Trantsizioak: Piztu Aldaketa! DVDa
3 ale

4



Arrasateko kooperatibagintzaren erroak eta dilemak
2 liburuxka

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | guinea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

LANDAREAK LANTZEN BIGARREN ARGITARALDIA



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Sekula ez al zaizu pasa, irakurle baratze-zain, urte batean ilarrak mundial atera, datorren urtean zein egun eta ilargialditan erein zenuen gogoratu nahi, eta ezin? Orain badu konponbidea horrek! Jakoba Errekondoren eta Antton Olariagaren eskutik heldu zaigu nobedadea: baratzeko agenda.

Badator urte berria eta 2018ko lehen egunetik agenda hau martxan edukitze-ko, abendua garai aproposa dugu berau eskuratzeko. Eta liburu-dendan zenbat aukera... Zer berezitasun du agenda honek? Gure egunerokotasuneko lan eta oharrak baino, gure baratze eta lorategien eguneroko lan eta oharrak apuntatzeko balio digu *Landareak Lantzen* baratzeko agendak. Agenda praktikoa bat da. Zer noiz eta nola egiten den azaltzeko gomendioak emango dizkigu, ilargiaren gorabeherak eta posizioak eskainiko dizkigu, eta norberak bere lanak apuntatu ahal izango ditu. Aurrera begira baliagarri izango zaigu informazio hori guztia, datorren urtean oroitu nahi badugu zer, zein garaitan, zein ilargialditan edo nolako eguraldia zenean egin genuen, agendan jasota izango baitugu.

Dagoeneko bigarren edizioa

Aurkezpenak egiten hasiak dira dagoeneko herriz herri, eta oso harrera ona



izaten ari direla ziurtatu digu Jakoba Errekondok. "Lagun asko gerturatu zaigu agenda berria ezagutzera, eta asko izan dira eurentzat alea erosi eta zer den ikusi ondoren beste aurkezpen-saio edo azoka batera gerturatu eta ingurukoren batentzat opari moduan erosi dutenak", adierazi digu usurbildarrak. Horren erakusgarri da, salmenta gune nagusi den Durangoko Azokara iristerako bigarren argitaraldia egin behar izan dela.

Durangoko Azokan

Irailetik urte amaierara bitarte berrogei bat aurkezpen aurreikusten dituzte egileek. Plaza garrantzitsuak dira herriz herriko bisitak, noski. Eta Durangoko Azoka da beste elkargune garrantzitsuetako bat. Abenduaren 6tik 10era Landakoko azken urteetako ARGIA eta *Bizi Baratzearen* txokoa egongo da egunero Jakoba Errekondo aleak sinatzeko, bertaratutakoen zalantzak argitzeko, kontsultak egiteko... Eta letxugak ez dira faltako aurten ere postuan.

Baina Durangora joan arte itxaron nahi ez dutenentzat informazioa: hurrengo aurkezpenen zerrenda astekariko *Bizi Baratzea* atalean duzu (zenbaki honetan 39. orrian) eta agenda eskuratzeko aukera <https://azoka.bizibaratzea.eus> helbidean. ■

Bertso Txapelketako finalerako sarrerak zozketan ARGIA jendearentzat

Barakaldoko BECerako lau sarrera zozketatuko ditugu ARGIA JENDEAREN artean: bi sarrera bikoitz izango dira. Zozketan parte hartu nahi baduzu, idatzi komunitatea@argia.eus helbidera eta eman izen abizenak, telefonoa eta helbidea.

Parte hartzeko azken eguna abenduaren 10a izango da, eta hurrengo egunean egingo dugu zozketa, irabazlea www.argia.eus webgunean iragarri.

AGENDA

Abenduak 2, Usurbilen, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Boroblean lan berriaren aurkezpena ARGIAren alde.

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak bi emanaldi antolatu ditu egun bererako: 16:00etan eta 18:30ean.
- Sarrerak eskuratzeko: Usurbilgo Bordatxo tabernan eta Marije arropa denda; Lasarteko Artizar tabernan; Hernaniko Leokadisti liburudenda; Astigarragako Ikatzar tabernan; Urnietako Ezeizan; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Zumaia Tipitaki kafetegian. Edo www.argia.eus-en denda.



Azaroko sarituak

- **EGUTEGIAK:**
Joanjo Aduriz Zabala (Erretera),
Eneko Ceciaga Elexpuru (Donostia).
- **KORRONTZI:**
Xabier Ugalde Billar (Topas),
Jose Markaide Nafarrete (Gasteiz).
- **MUGARIK GABE:**
Axier Iturrate Azkueta (Lemoa),
Murua Garmendia Sendia (Ordizia).
- **TXINGUDI:**
Malentxo Arrozpide Arrate (Lizartza),
Idoia Azkona Ramos (Iruñea).

Ekonomia Solidarioaren V. Azokan

Marijo Aiertza eta
Pello Zubiria, azaroaren
18an Erreterian ARGIAren
mahaia zaintzen.



Rrucculla, DJ-a

“Abesti bat egitea munduko musika guztiak elkartzea da”

Orain urtebete inguru erabaki zuen Izaskun Gonzalezek bazela garaia ordenagailuaren aurrean bakarrik pasatako orduei izen bat jarri eta proiektu bat abiatzeko. Horrela sortu zuen Rrucculla, eta denbora gutxian zeresan franko eman du bazterretan. Egun, disko berrian sartuta dabil buru-belarri.



Kepa Matxain
@kmatxain

Belaunaldiaren marka darama Izaskun Gonzalezek (Barakaldo, 1994). “Youtuben hazi naiz. Gai naiz segundo gutxi batzuetan jazzik *smooth*-ena entzute-tik grime-a entzutera pasatzeko. Nire egunerokoa horrelakoa izanik, normala nire musika ere gisa berekoa izatea”. Urtebete pasatxo da Rrucculla izenpean agertokietan hasi zenetik, eta ordutik kanta sorta ederra osatu du, denak ere erritmo eta soinu oso desberdinen hibridaziotik sortuak, free-jazzaren, hip hop abstraktuaren edota poparen oihartzunak dituztenak. Ez dira, halere, samplerren “ebaki-itsatsi” soilak. “Nire abestietan gauza bakoitza egon behar duen tokian dago. Denak dauka zentzu bat”. Zentzu hori letretara ekartzen saiatu gara elkarrizketa honetan.

Noiz musika-zaletu zinen?

Etxean betidanik entzun dugu musika. Gurasoek denetarik jartzen zidaten: latin jazz, rocka, Phil Collinsen diskoak... Bederatzi urterekin discmana erosi zidaten, eta hura entzuten pasatzen nintuen orduak. Anaia gitarra ikasten hasi zenez, nik bateria aukeratu nuen, eta zazpi urtez aritu nintzen ikasten. Musika lengoian ez nintzen oso abila, ordea.



Ez nuen solfeorik ikasi, asko aspertzen ninduten gauza horiek. Bateria eskole-tan ere ez nuen inoiz etxeko lanik egiten. Ez naiz oso arduratsua gauza horietan. Beti aritu naiz nire kasa, interesatzen zitzaizkidan kantak ikasten.

Musikari asko dabil kexu: musika klaseek sorkuntza pizten lagundu behar luketela, partiturak interpretatzera mugatu behar- rean.

Hala da. Bateria ikasten urte batzuk aritu ondoren, kontserbatorioan sartu nahi izan nuen. Marinbak eta bestelako perkusioak ikasi nahi nituen. Segituan ohartu nintzen, ordea, irakaskuntza di- ziplinatu eta serioa zela hura, eta nire sormen propioa kamustuko zidala. Nik neure burua hobeto ezagutu nahi nuen,

nigandik aterako zen zerbait osatu, eta ez paper batean jartzen duena jotzen ikasi. Ezagutzen ditut kontserbatorioan bateria ikasi duten zenbait lagun, pa- rean paper bat jartzen ez badiezu zer jo ez dakitenak. Ez dakite inprobisatzen. Niri hori ez zait interesatzen.

Koloreetatik eta formatatik abiatuta sor- tzen dituzu kantak.

Lehendabizikoak bateria erritmoetatik abiatutakoak ziren, baina konposatzera- koan neure buruaz aspertzen naizenez, melodia edo soinu bati tiraka sortzen hasi naiz. Eta bai, musika lengoaiarik ez dakidanez, lagungarri zaizkit koadroak, arte obrak, jendea, irudiak eta formak. Abesti baten istorioa egiten laguntzen didate.



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



Haur eta gaztetxoak, gizarte elxeetan

[IPUIN KONTAKETA]

'Guztiok garrantzitsuak gara'

Abenduak 2, 10:30 eta 12:00

Matiz taldea. Arriaga gizarte etxea

[IPUIN KONTAKETA] 'Kikili salda'

Abenduak 5, 18:00

Amaroa Kultur Elkarte. Pilar gizarte etxea

[IPUIN KONTAKETA MUSIKALA]

'Amilami'

Abenduak 12, 18:00

Pantzar Teatro. Ariznabarra gizarte etxea

[ANTZERKIA] 'Crikuren paseoa'

Abenduak 10, 18:00

Turkutupa taldea. Arana gizarte etxea

[TAILERRA] 'Zein zapore'

Abenduak 16, 11:30

Zientzia dibertigarria. Judimendi gizarte e.

Oihaneder euskararen etxean

[HITZALDIA]

'Heziketa: eraldaketarako motorea?'

Abenduak 19, 19:00

M. Camisón, I. Iztueta, J. Sarasua &

A. Santamaría

Agora Filosofia Elkartearekin elkarlanean

[ELKARRIZKETA] 'Mari Domingi eta Olentzerorekin bideo-elkarrizketa irekia'

Abenduak 20, 18:00 eta 19:00

Galderak bidaltzeko: oihaneder@oihaneder.eus

abenduaren 11ra arte

Gonbidapenak Oihanederren. SolasAlean

[MUSIKA] 'Nigara Zuek'

Abenduak 21, 19:30

Eskilarapeko Soinuak, formatu txikiko kontzertuen zikloa

[IKUSKIZUNA] 'Mugaldekoak'

Abenduak 28, 21:00

E. Zelaieta & B. Goietxe & R. García

Principal antzokian

'Artxipielagoak'

Abenduak 20, 20:30. 21/15 euro

A. Egaña, A. Garmendia, P. Ramirez,

G. Mendizabal & G. Ormazabal

Benito Lertxundi

Abenduak 29, 20:30. 35/25/20 euro

**Maite duzun
hura, euskaraz!**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Zehaztu dezakezu hori? Zertan lagun-tzen dizute koloreek, formek eta abarrek abesti baten istorioa egiterakoan?

Ezin dut logelan eta bakarrik konposatu. Gurasoen etxeko egongelan sortzen ditut kantak, eta han, sofaren parean, Kandinskiren irudi batzuk daude. Jazz disko bat osatu nuen irudi haietan oinarrituz. Ohitura horrekin jarraitzen dut konposatzerakoan: zirkulua bonbo bat da, karratua bateriaren kaxa. Koloreekin, berriz, sinestesia gertatzen zait. Ez naiz ausartzen esatera gorria sintetizadorearen linea bat dela. Hori bakoitzaren arabera izaten da.

Orain urtebete hasi zinen zuzenekoak ematen, Bilbo Hiria lehiaketako finalera iritsi zinenean. Zergatik erabaki zenuen jauzi hori ematea?

Ez dakit. Beti pentsatu izan dut ez nuela ezer apartekorik egiten. Baina ez nuen izan nahi betelan hutsera mugatzen diren artista horietako bat ere. Apuntatu nintzen, hautatu ninduten, eta, nire harridurarako, gertatu da gertatu den guztia.

Hori baino lehenago, bateria jotzen ze-nuen hainbat rock taldetan. Noiz eta zergatik hasi zinen ordenagailuarekin esperimentuak egiten?

Hamasei bat urterekin hasi nintzen ordenagailuarekin saltsan. Ordurako, nahiko musika konplexua entzuten nuen, The Mars Volta eta halakoak. Haiek erabiltzen zituzten soinu elektronikoak nola sortzen ziren jakin nahi nuen. Egin nituen saiakera batzuk orduko taldeekin, bateria jo bitartean ordenagailuarekin probak eginez, baina ez zuen funtzionatzen, eta nire kontura etxean jarraitu nuen. Arratsaldero teklaturia eta bateria jotzen

aritzen nintzen, bi eskutara. Loop-ak egiten hasi nintzen, gero produkzioan sakondu nuen, elektronika garaikideko kontuetan, eta halaxe, gaurdaino.

Erabat autodidakta zara, beraz.

Bai. Duela urte eta erdira arte ez nekien zer zen musika produzitzea, masterizatzea, nahasketak egitea, eta halako ezer.

Harrigarria da urte eta erdian zenbat gauza egin dituzun. Asko jo duzu zuzenean, jaialdi handietan ere bai: BBK Live-n, Primavera Sound-en eta Low Festival-en, adibidez.

Pentsa ze bilakaera: lehen ez nuen nire musikaz hitz egiten gertuko lagunekin ere. Bilbo Hiria lehiaketaren aurretik inork ez zekien musika egiten nuenik. Kosta zitzaidan lehen kontzertuei neurria hartzea, nire kantei kapa asko dituztenez, zati batzuk grabatuak nituelako. Ezin nuen %100 zuzenean aritu. Orain kontrolpean daukat dena, eta gogoz aritzen naiz. Primavera jotzea ederria izan zen, ordu perfektuan, goizeko hirurak aldera. BBK-n, ordea, ez nintzen gustura aritu. Ongi dago musikari hasiberriak gonbidatzea eta hori guztia, baina denok ez dugu balio arratsaldeko bostetan jotzeko. Sekulako eguzkitzarrak zegoen gainera, eta nik Ableton Push bat erabiltzen dut. Han ez zegoen modurik argiak ikusteko, eta set guztia egokitu behar izan nuen. Kaotikoa izan zen. Ez nintzen batere eroso sentitu.

Abesti deserosoak eta aurreikusteko zailak egin nahi omen dituzu. Nola egiten da hori?

Ez dakit. Badakit adibidez, technoa aurreikusgarria egiten zaidala. Gustatzen zait beste kanta batzuekin nahastuta, DJ

saiotetan egiten den bezala. Baina niretzat, abesti bat egitea munduko musika guztiak elkartzeta da. Afrobeat erritmo batetik grime erritmo batera igarotzea. Lau konpasean behin kanta apurtzea. Ez duzu aurreikusten, eta sorpresa horrek txunditzen zaitu.

Zergatik iruditzen zaizu technoa aurreikusgarria?

Beltzen erritmoan doan danbor konstante bat delako. Senti dezakezu bestela, baina hori konposatzea niretzat ez da berezia. Ez nuke gozatuko. Elementu gehiago behar ditut, emozio gehiago kantaren barnean. Irakurri dut zerbait, technoaren tempoa eta bihotzak minutuko ematen dituen pultsazioak antzekoak direla, eta horregatik gustatzen zaiola jendea zazpi orduko saioetara joatea. Nik goza dezaket pixka bat, baina zazpi ordu segidan ezingo nuke entzun.

Zure abestiak mantso liseritzekoak dira, aldiz. Entzunaldi aktiboa eskatzen dute.

Ez dakit zergatik esaten den nire musika konplexua dela. Bizitza erraza al da, akaso? Nire kantak egun arrunt bat bezalakoak dira. Gauza asko gertatzen dira egun batean, une batez oldarkor zaude, eta handik gutxira barrez, eta... ez dago deus konplexurik hor.

Esan nahi nuen ez direla aurreikusgarriak, ez behintzat egunero supermerkatuan, autoan, tabernan, jendeak entzuten dituen kanten %90a bezalakoak, egestura eta erritmo errazekoak. Belarria pop kulturen hezi duenari eskatzen diote esfortzu pixka bat.

Bai, hori bai. Orain lantzen ari naizen diskoan sartu nahi izan dut pop mundua, eta zin dagizut, bizitzan egin dudana

Gabonak euskaraz haur eta gazteentzat!

MATRIKULA ZABALIK

www.gazteola.eus

Gazteola*
Haur eta Gazteak

Bilbo erdian

euskara eskola
antzerkia · euskaraz jolasean
sukaldaritza · dj tailerra



gauzarik zailena izan da. Ez naiz popa egiteko gai. Zerbait ateratzen zait, baina ez zait gustatzen. Zerbait gehiago behar duela iruditzen zait. Ulertzen dut, dena den, batzuei entzuteko zaila egitea.

Silvia Pérez Cruzen *Loca* abestiaren rework bat egin duzu. Edo, bat-batean, *Aserejé*-ren zati bat sartzen duzu abesti batean. Ze irizpide erabiltzen duzu gauza horiek erabakitzeke?

Ez dakit. *Aserejé*-k grazia egiten dit, besterik gabe. Kantari beste giro bat ematen dio bi mundu erabat desberdin batzuek. Bestalde, beti gustatu izan zait Silvia Pérez Cruzek egiten duena. Elkarrekin kolaboratzea zaila izango denez, gau batez *Loca* Youtubetik deskargatu, Abletanean jarri eta esperimentatzen hasi nintzen.

» “Musika lengoaiarik ez dakidanez, lagungarri zaizkit koadroak, arte obrak, jendea, irudiak eta formak. Abesti baten istorioa egiten laguntzen didate”

» “Ez dakit zergatik esaten den nire musika konplexua dela. Bizitza erraza al da, akaso?”

Ableton-a aipatzen duzu, Logic Pro-a ere erabili izan duzu... musika elektronikoak ez al du software pribatuarekiko dependentsia handia?

Bai, hori badago. Nik, orain, Ableton-a bakarrik erabiltzen dut. Zertarako ordainduko ditut mila euro tramankulu puska batengatik, soinu hori bera ordenagailuan izan badezaket?

Badaude beren sintetizadore propioak eraikitzen dituztenak ere...

Tira, ordenagailuan saltseatu ahala ikasten duzu programak hackeatzen eta hori guztia. Ni gehiago naiz software zalea hardware zalea baino. Beti egin dut lan eskura ditudan tresnekin. Ableton-arekin ez balitz, ziur asko beste programa batekin egingo nuke musika. Badira, adibidez, zarata egiteko doako programak.

Zertan ari zara orain?

Hurrengo diskoa amaitu nahian nabil. Lan gogorra izaten ari da, soinu jakin baten bila nabil eta. Denbora pila ederra ari zait kentzen. Tarteka etsigarria da, altu jarri dut langa eta ezin jakin ea maila emango dudana. Gustatzen zaizkidan musika guztiei buruzko nire ikuspegia da oraintxe egiten ari naizena. Izan nahiko nukeena, entzun nahiko nukeena. Hor nago. Elektronika garaikideago eta aurreikusezinago bat da.

Amaitzeko, aipa ditzakezu interesatzen zaizkizun artista garaikide batzuk?

Euskal Herrian, aipatuko nituzke Kvalvika, II (Kris GM), Mark Luva eta Delorean. Hemendik kanpo, Iglooghost egungo produktore onena iruditzen zait. Lorenzo Senni aparta da, baita Sophie eta Abra ere. ■

ABENDUAREN 6tik 10era
52. DURANGOKO AZOKA

BIDAIATU SORMENAREN LURRALDERA
www.durangokoazoka.eus

ANTOLATZAILAK

ERAKUNDE PUBLIKOAK

ERAKUNDE PRIVATUAK



Alejandro Tapia

Sotil eta bare

IZENIK GABE (2006)

Olio, 18 x 22 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Usurbilgo Sutegi aretoan egon da ikusgai, azaroaren 3tik 12ra, erakusketa isil eta delizios bat. Usoa Zumetak egin ditu komisario lanak, artistak estudioko leku kuttunean gordeta zeuzkanak hartu eta jartzea besterik ez duela egin esanez agertu da umil, baina loriatzen du erabakiak, soiltasunak mesede egiten zion, ez zuen gehiago behar.

Lanak ere halakoxeak dira, soilak, so-tilak, isilak, bareak. Zaratarik egin gabe joan zen Alejandro Tapia Aiestaran (Aginaga, 1930eko azaroaren 26a – 2016ko abenduaren 24a). Bere omenez jarri dute erakusketa, atera dute katalogoa, banatu dute bisitarien artean. Eta ikus-

leak eskertzen du, baina pena ere ematen dio, papereko argazkiak koadro hau ikusi zuen instant hura ekartzen baitio gogora, eta harekin batera, eta batez ere, hura berritu ezina.


Anjel Lertxundik eta Bernardo Atxagak idatzitako bi testu dakartza katalogoak, eta halaxe jasotzen du Atxagarenak: “Batzuetan, Basho eta bere lagunen poematxoetan bezala INSTANT bat jasotzen diate, zeru baten azken argia”. Naturari begira bizi izan da artista, dena egiten zaio miragarri bere soilean, paisaia beti da bere barne paisaia.

Atxagarena da hau ere: “Baserriko seme, langile Tolosa eta Donostiako

errestaurazio tailerretan hamalau urtez geroztik, Tapiak 1962an erabaki zuen bere burua osoki pinturara ematea, garai hartan ospetsua zen Eguberriako Saria irabazi ondoren. ‘Lana utzi behar duk?’ –esaten omen zioten etxean inguruko mundua gogoan hartuz. Ez baitzegoen inguru hartan ez pinturarako girorik eta ez koadro erosle jakinik. Ordea berak barne-barneko aspirazioa zuen pintura, ezin zuen nahi hura burutik kendu, eta arriskatzea erabaki zuen”.

Eskerrak batzuek arriskatzea erabaki zuten, eskerrak batzuek edertasunaren alde egiten duten. ■

Bertako ekoizleekin konpromisoa



Hemengoak
gara eta
bertako
produktuen
kontsumoa
sustatzen dugu



www.eroski.es



EROSKI

zurekin

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bestea errespetatzen



Xabier Etxaniz Erle

Arraroa horixe da liburuaren azalean ageri den neskato horrek esaten digun lehen hitza: “Arraroa egiten zait lehenengo pisuko bizi-lagunaren leihoan peluka hori bat zintzilik ikustea beti”. Eta, hain zuzen, horixe da neska horrek begiratzean lehenengo pisuko leiho parean zintzilik ikusten dena, kulero bat, galtzerdi bat eta tantak darizkiola dagoen aipaturiko peluka horia.

“Amak dio hori baino arraroagoa dela, Zubizarretarrek biluzik daudela zintzilikatzen dutela arropa” diosku ondoren gure kontalari finak. Eta irudian Zubizarreta familiako kideak ikus ditzakegu biluzik etxean (aita arropa zintzilikatzen, ama sofán egunkaria irakurtzen, semea sofán amaren ondoan, alabak... Eta horrela etxeko auzokoen arrarotasunak agertzen joango zaizkigu, amona ez dela etxetik ateratzen, guraso begetarianoak dituen mutikoa beti dagoela txorizo-ogitartekoak jaten, Jennaren amak euskarazko etxeko lanetan laguntzen duela... eta komentario horien ondoan informazioa osatzen duen irudia dugu (Jennaren ama beltza eta musulmana dela ikusiko dugu, esaterako, edo narratzailearen amona ohean dagoela, gaixorik, medikatuta baina, hala eta guztiz ere, jolasteko gogo biziz).

Arraroa album honek XI. Etxepare saria irabazi berri du eta, egia esan, pozgarria da sariketa honek euskal kulturari egiten dion ekarpena. Oraingo honetan, esaterako, oso obra berritzailea ekarri digula esango nuke. Ez bakarrik testuaren

Arraroa


AINARA AZPIAZU

Ilustratzailea: Paula Estévez

Pamiela, 2017

32 orrialde

Haurrentzat



Ainara Azpiazu Aduriz (Hernani, 1980) ilustratzailea da ‘Arraroa’ albumaren testuaren egilea.

ARGAZKIA: DANI BLANCO



eta irudien aldetik (kolore bizi eta oso ongi markaturiko formekin, informazio zehatza eta argia emanez) baita tratatzen duen gaiagatik ere. Gai asko direla esango

genuke (auzoko bakoitzak bere izaera bitxia, ezberdina, besteengandiko ezberdina daukala esango genuke) baina guztien gaitetik bat nabarmentzen da,

onarpenarena, besteekiko errespetua.

Gizakion askatasunaren aldeko lana da *Arraroa* hau; izan zaitez zeu, eta onar itzazu besteak diren bezalakoak.

Arraro hitzarekin ekiten dio narratzaileak kontakizunari, eta horixe da liburuan zehar gehien errepikatzen den hitza, bai eta liburuari amaiera ematen diona. Oraingoan, baina guztiz bestelako zentzua izango duen esanahiarekin, arrarotasunen kontrako mezuarekin: “Denetan arraroena da, niri, geroz eta gauza gutxiago iruditzen zaizkidala arraro”. ■

» DISKOA

Kemen berria



Joxi Ubeda Goikoetxea

Melodia atseginak entzun daitezke Beñat Igerabideren bigarren diskoan. *Orbainak* (2014) lehen diskoa egiteko jarraitu zuen bide beretik osatu du, baina, oro har, lan berria aurrekoa baino indartsuagoa eta alaiagoa dela esan daiteke, baikorragoa, eta aurreko lana intimistagoa, barrura begira egindakoa. Gogo eta indar handia suma daiteke azken diskoan, *Indar berri bat* kantan dioten bezala: “Kate guztiak askatu ditut, indar berri bat daramat soinean jauzika; geldituko nauen oztoporik ez da”.

Pop-rock kutsuko kantuak dira, funk, folk eta beste hainbat estiloren ukituekin ongi jantziak, eta ausardia, kementa, bizitzeko gogo, elkartasuna, maitasuna, natura eta beste hainbat gairen gainean mintzo direnak: “Badator gelditzerik ez dagoen lurrikara; isiltasunetik, deiadarra; geroratu dugun aldaketaren hasiera (*Mundua ederrago*)”, “Badut arnasa, giharretan sobera indarra; nola galdu ba lur berri honen deia” (*Geldialdi bakoitzean*), “Ez dut eraikiko zorionaren atean harresirik, ametsek leihoa zabalik dute oraindik” (*Biluztu*).

Beñat Igerabidek berak konposatu ditu doinuak, idatzi ditu hitzak eta grabatu ditu

Geldialdi bakoitzean

BEÑAT IGERABIDE

Elkar, 2017

Beñat Igerabide abeslari adunarra, zuzeneko emanaldian.



kantak Adunan daukan estudioan, Sonolan, lehenengo diskoarekin egin zuen bezala. Dena den, kantak prestatzerakoan eta ekoizpen lanak egiterakoan bere taldeko kideekin aritu da, xehetasunak zaintzen, eta soinu trinkoa eta mardula gauzatu dute. Halaber, Lide Insaustik eta Sara Azurzak kolore politak gehitu dizkiete kantuei beren ahots ederrekin.

Urratsez urrats, bere ibilbidea egiten ari da Beñat Igerabide. Hainbat talderekin jo ondoren, kantuak bere kabuz sortzen hasi zen, eta 2009an soinu ikasketak burutu zituen. Bere proiektua lantzen zenbait urte pasatu ondoren, taldea osatu du, eta jadanik bi disko ditu kalean.

2015etik aurrera, David Etura (bateria eta ahotsak), Matthieu Haramboure (baxua), Pello Gorrotxategi (teklatuak) eta Gorka Urria (gitarra, ahotsak) musikariekin aritzen da. Eskarmentu handikoak dira, Izotz, King Mafrundi, Brighantha, Niko Etxart, Xabi San Sebastian, Triki ta Ke, Esne Beltza, Karidadeko Benta, Egan eta beste zenbait taldetan arituak. Haiekin osatu du disko berria eta jendaurreko emanaldi indartsuak egiten ari da. ■



Dominak debalde



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: ALBERTO ELOSEGI / XDZ

Bigarren itzuliak ez du alferrik izen hori. Donibane Lohizuneko Jai Alaiko giroari erreparatzea aski zen ohartzeko oholtza gainean ez zela inor zerotik hasiko, lehendik egindakoaren motxilak inoiz baino gehiago pisatzen zuen han –esaterako, Agin Laburu, keinu umoretsuz, kamiseta arrosarekin taularatu da; edo Maialen Lujanbio kartzelan hastera zihoala, harmailak pronto ziren, Irungoa gogoan, esku-zartara entregatzeko-. Oraingoan ez da, ziur asko, une gogoangarriarik izan, baina maila handiko saioa joan da, bertsolari guztiek utzi dituzte ale onak han-hemen.

Maialen Lujanbio astinaldi izugarrikeragin gabe, baina oso goian, hasi eta buka; Igor Elortza borobil eta erregular, ofizioetan koska ateraz –hamarreko txikian batez ere–; Jone Uria asmotsu eta bizi, zortziko txikian eztenkada ederrak botaz; Julio Soto indartsu hasieran, itzaliago amaieran; Iñaki Apalategi gorabeheratsuago, ihes egindako puntu batzuekin, baina baita indartsu asko jotakoekin ere; azkenik, Agin Laburu izan ditu egun hobeak, baina jasotakoak baino zakukada bat gehiago puntu espero genuen harentzat batzuek –lehen hiru ariketetakoei begiratuta, batez ere–.

Eman didate zer pentsatua entzuleen artean sumatu ditudan hiruzpatalau zurrumurrualdiek, Lujanbiok eta Apalategik poto egin ote dutela eta. Denoi gustatzen zaigu bertso batean poto bat detektatzen duguneko satisfakzio momentu hori, baina irudipena daukat neurritz gain puzten ote dugun. Poto egin ez gero, akabo, bertsoa zerokoa bihurtzen da supituan. Aldiz, puskaz barkaberragoak gara, potori egin ez arren –are, sarri potoa saihestu asmoz– kaltzadorearekin sartutako errimadun bertso-lerroekin. Eta askoz okerragoak izaten dira horiek gehienetan.

Arratsaldeko unerik bizienak sortu dira bertsolariek gaitik harago jauzi egin eta “hemen eta orain” gertatzen ari zenari erreferentzia egiten asmatu dutenean, dela aurreko ofizioetan gertatutakoei keinu eginez –Laburuk eta Uriak puntukakoan egin bezala, adibidez–, dela albokoaren momentuko itxurari keinu eginez –Lujanbiok Apalategiren alkandora aipatu duenean, esaterako-. Batez ere, pertsonaia atzean utzi eta pertsona agertu den uneetan jo du goia saioak, erakutsiz bertsolaritzaren kodean fikzioa abiapuntu dela asko jota, ahal dela transzenditu beharreko zerbait.

Kartzelako ariketak eman ditu, ohi duenez, analisirako osagai gehien. “Gezurra esan duzu, baina merezi izan du”,

DONIBANE LOHIZUNeko FINALAURREKOA

Azaroaren 26an. Saioko sailkapena:

Igor Elortza (710 puntu)
Maialen Lujanbio (707,5)
Julio Soto (671)
Jone Uria (668,5)
Agin Laburu (634,5)
Iñaki Apalategi (633,5).

GUZTIRA FINALAURREKOETAN

Maialen Lujanbio (750+707,5)= 1.457,5 p.
Igor Elortza (703+710)= 1.413
Sustrai Colina (705,5+701)= 1.406,5
Beñat Gaztelumendi (694,5+694,5)= 1.389
Jon Maia (675+681,5)= 1.356,5
Jon Martin (671+668,5)= 1.339,5
Julio Soto (668,5+671)= 1.339,5
Nerea Ibarzabal (663+675,5)= 1.338,5
Jone Uria (669+668,5)= 1.337,5
Agin Laburu (690+634,5)= 1.324,5
Iñaki Apalategi (648+633,5)= 1.281,5
Etxahun Lekue (656,5+615)= 1.271,5

2. saioa jokatzeko zain daudenak:

Aitor Mendiluze (740,5)
Aitor Sarriegi (705)
Miren Amuriza (678,5)
Oihana Iguaran (671)
Unai Agirre (667,5)
Alaia Martin (651)

zuten gaitzat, eta hiru bide desberdin hautatu dituzte bertsolariek:

a) Gezurra esatea norbere interesen alde.


b) Gezurra esatea kausa on baten alde.

d) Gezurra esatea norbere interesak tarteko diren kausa on baten alde.

Bereziki eskertu ditut Uriaren eta Apalategiren –kurioki, ariketa horretan puntu gutxien jaso dituztenak– abiapuntuak, moralki hautu ez-zuzena hartzen duten pertsonaia bana sortuz –bata irakaslearen zigorretik bere zilborra salbatu nahi duen ikaslea, eta bestea Frantziako Tourra dopatuta irabaztera doan txirrindularia–. Gainontzekoei moralki hautu zuzena egin dute, eta, jakina denez, halakoetan arrisku handi bat izaten da: *dominakerian* erortzekoa. Ateratzen dira heroiak, justizieroak, eta diskurtso autokonplazienteak. Eta zalantza handiak ditut, hiru bertsoak bikain josi arren, puntu asko eman dakizkiokeen funtsean norbera zein eredugarria den esaten amaitzen duen pertsonaia batek kantatzeari. ■

Gurutzegrama

Gaia: Nafarroako basoak



Ezker-eskuin:


1. Atzeko aldetik. Erasoari etsi gabe aurre egin. Eroale. 2. **Gutxi gorabehera Leitzako lurraldearen erdia hartzen duen basoa, gehienbat pagoak eta haritzak bizi dira han. Monumentu megalitiko ugari daude, baita garai bateko oletako aztarna eta hondakin asko ere.** Lantegi. 3. Aran. Nafarroako ekialdeko Pirinioetan dagoen basoa, mendiz inguratutako arro batean (Ori, Abodi...). **Bi sarbide ditu, mendebaldekoa Orbaizetatik eta ekialdekoa Otsagabiatik. Europa mendebaleko oihanik zabalenetakoa bat da.** 4. Kanta zaharra. Deusez. 5. Zerbaitez harrotu. 6. Garbiketarako produktuak. 7. Atoian eraman. Ipurua. 8. **Nafarroako iparraldean dagoen pagadia. Baztan, Erro, Esteribar eta Aldude ibarrekin gune honen jabetza partekatzen dute. Arga ibaiak zeharkaturik, bazter paregabeak gordetzen ditu; esaterako, Eugiko Errege arma fabrikaren aztarnak eta Odiako erroitzak.** Eskuzabaltasunez. 9. ... Tolosa. "Morau". ...-erdi, erabat. Eguzkiak jotzen ez duen toki. 10. Nauka. Anaidia. Oftalmologoa.

Goitik behera:

1. Zona, inguralde. Bitxi, arraro. 2. Letra izena. Tinako, treska. 3. Ihi. On bihurtu. 4. Interjekzioa. Arnasa ezak hil. 5. Euskal fonema. Mila kilo. 6. Kasik. Tolosaldeako herria. 7. Elementu kimiko. 8. Ahuntzaren ar. 9. Murmurikatu. 10. Hamargarren hila. 11. Infusioa. Eraikin mota. 12. Santua. Areago. 13. Mendiko etxetxo. 14. **Ultzamako bailaran dagoen haritzia, Lizaso herrian. Ehunka urte dituzten haritzek osaturiko basoa da.** 15. Jasan. 16. Euskaltegi sarea. 17. Kanpo. Ibaietako arrain txiki. 18. Sarritan. Galde partikula. 19. Trikitian, adore emateko. Bi. zerbaki erromatarrez. 20. Landare lekadun. Osmioa. 21. Xabier ..., kantaria. Kontsonante bikoitza. 22. Erizainaren lanbidea.

Beteggrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Uhaga.
2. Zirgiloak.
3. Giza nortasuna hartu edo eman.
4. Aldapa, malda, aldats.
5. Errenta, alokairu.




Ebazpenak



5XS3:
1. Ponpa
2. Oboak
3. Nortu
4. Patar
5. Akura

Erke-eksum: 1. Atzeib, buis, barmale.
2. Leitzlaarrea, Tailer: 3. Okaran, Irrea, 4. Eresi, Ezereza.
5. Lortatu, 6. Xaboiak? 7. Atotzu, Orrea, 8. Kintoa, Largoki.
9. Andoni, Erdiz, Laiotz, 10. Nau Anaratrea, Okulista.
Goitik behera: 1. Alde, Bakan, 2. Itz, Tina, 3. Zi, Ondu.
4. Etz, Ito, 5. Itz, Tona, 6. Iaz, Elidain, 7. Koro, 8. Aker.
9. Eresi, 10. Urria, 11. Itza, Itxaler, 12. Sandua, Ate.
13. Borda, 14. Orgi, 15. Itzo, 16. Aek, 17. At, Ezkaliu.
18. Maiz, Al, 19. Aire, li, 20. Ilat, Os, 21. Lere, Itz.
22. Erizaintza.

Miquel Missé. Trans nortasuna aldarrikatzen



Transexualitatea inoiz baino ikusgarriagoa da. Orain dela gutxi arte trans erreferente bakarrak estigmatizatzaileak ziren, eta gaur egun baikor hitz egiten da haietaz, eta lehenengo pertsonan. Baina horrek ez du esan nahi, dio Miquel Missé soziologo eta ekintzaile transak, nagusi diren diskurtsoekin kritiko izan behar ez denik. Donostiako Feministaldian izango da abenduaren 2an.

“Bizitza errazagoa da mutil gisa bizitzea erabaki nuenetik”



Lara Bonilla / Ara.cat

@larabonilla

ARGAZIAK: JORDI BORRÁS

Nortasun agiria

“Ez dut nortasun agiria aldatu, ez bainago ados horretarako bete beharreko baldintzekin, eta nire bizitzaren parte baita. Nire bizitzaren garai batekin lotzen nau, eta ez dakit parte hori ezabatu nahi dudana. Ez zait gaizki iruditzen jendeak ikus dezan ni ere baina beste zati bat, orain ikusgarritasun hori izan dezaket”.

Caitlyn Jenner, Wachowski ahizpak, transexual adingabeen gurasoak... Ikusgarritasunak laguntzen al du?

Gaia azaltzeko modu asko daude, eta denek ez dute burujabetza handitzen. Transexualitatea garunarekin lotzen duten diskurtsoekin oso kritikoa naiz. Gizonaren eta emakumearen garunaz hitz egiten dute, eta trans pertsonak modu bateko garunarekin jaiotzen direla, berena ez den gorputzarekin. Diskurtso horrek ikusgai egin dezake trans egitatea, baina ez du ahalduztzen.

Trans izatea okerreko gorputzean jaioztea zela esan ziguten.

Gure gorputzak arazoa duela esaten da, eta ez gizarte markoa estuegia dela. Gure gorputzek ez dute huts egin; gizenek ere okerreko gorputzak dituzte? Atseginagoa da hori esatea gizon oso femenino edo emakume oso maskulinoa izatea baino. Nahiago ditugu okerreko gorputzean jaio eta trantsizioa egin duten pertsonak, genero arauak zalantzan jartzen dituztenak baino.

Eta orduan zer da transexualitatea?

Nire ustez, gizarte eredu baten ondorioa da, non gizona eta emakumea kategorio oso zurrunetan kokatzen diren. Gizona edo emakumea izatea ez da egitate bat bere horretan, interpretazio kulturala da. Pertsonak beren generoa ahalik eta askeen adierazi eta bizi behar dutela aldarrikatzen dut. Bada ez gizon ez emakume sentitzen denik, eta ni hortik oso gertu sentitzen naiz. Kategorio bat aukeratzen dute biziraun ahal izateko, baina arrotza zaie. Eta nik diot, trantsizioa egin duen batek.


Transtzat duzu zure burua.

Bai. Bizitza errazagoa zait mutil gisa bizitzea erabaki nuenetik, eta adingabea nintzen. Orain daukadan informazioa izan banu ez dakit bide bera egingo ote nuen. Konponbidea zein da, genero batetik bestera igarotzeko proposatzea feminitate muturrekoa adierazten duen mutilari edo maskulinitate muturrekoa adierazten duen neskari? Nik nahi dut gizonak oso femeninoak izan ahal izatea eta emakumeak oso maskulinoak izan ahal izatea.

Azken helburua ez da kirurgia...

Ez. Azken helburua da ebakuntza egiteko beharrik ez izatea. Txikienentzat, gorpu-

“Aurrerapausoa da 2 urterekin transexuala izatea? Zalantza dut. 3 urteko mutil koskorrak esaten duenean ‘neska sentitzen naiz’ ez dakit transexualitate-desiotzat hartu behar den. Sailkatzeko beste modu bat ez ote den kezkatzen nau”.



tza azkar aldatzea ez da desiragarriena. Ikusezin nahi ditugu eta hori ez dator bat gorputza ez eraldatzearekin. Trans mugimendu helduak urte asko behar izan ditu genero kategoriak zabaltzeko beste era bat defendatzera iritsi aurretik.

Transexual adingabeen gurasoen mugimendua aurrerapena izan al da?

Aurrerapausoa da 2 urterekin transexuala izatea? Zalantza dut. 3 urteko mutil koskorrak esaten duenean “neska sentitzen naiz” ez dakit transexualitate-desiotzat hartu behar den. Sailkatzeko beste modu bat ez ote den kezkatzen

nau. “Neska izan nahi duzu? Ados, baina neska era klasikoan”. Interesgarria trans moduan ikusgarri den jendea da. Helburua ez da trans pertsonen ikusezin izatea desiratzea, baizik eta gizartea plurala izatea, behar hori sentitu ez dezaten. Nik nahi dudana da emakume transa, ahots lodiarekin eta aurpegian ilea duela, metroan sartzen denean inork ez esatea “Manolo kaka zahar hori”.

Beraz, zu biziko zintezkeen emakume oso maskulino moduan.

Aniztasuna onartuko lukeen bestelako erantzun soziala balego eta aukera-

tu behar ez izatea ondo ikusita balego, agian bai.

Orain zure nortasunarekin eroso al zaudete?

Ezin esan pozarren nagoenik transa izateagatik. Oso aukera legitimoa da, ez diot traiziorik egin nire buruari eta horrek harro sentiarazten nau, baina mundua ez dago trans jendearentzat prestatuta. Gimnasia joaten naiz eta oso zaila egiten zait, baina orban erraldoia daukarentzat ere hala da, baita herrenarentzat ere... Gorputza arautzea ez da gure arazoa bakarrik, arazoa eredua da. ■



LEGAZPIKO UDALA

www.legazpi.eus

Euskaraz? Pozik gainera!
Elkarrekin euskaraz? Pozik gainera!

Legazpiko Euskara Zerbitzua

Tel.: 943 737 191 • euskara@legazpi.eus





"TZ fonema misteriotsu hori" ikastaroan izena eman duten lehen ikasleak.

Euskaltegiak politikariz gainezka abenduaren 3rako entrenamenduak direla eta

"Abenduaren 3an egingo dituzten adierazpenetarako praktikak azken unera-ko uzten dituzte beti, eta holaxe gabiltza egunotan, euskaltegietan kabitu ezinik", kexatu da HABEko sarreran gurutzegramak egiten aurkitu dugun atezaina. "Urtero gauza bera", gaineratzera ausartu da.

Antza, politikari batzuk oso mokofin bihurtzen dira urtean behineko euskarazko jardunean erabiliko duten erregistroa aukeratzeko. "Batak Goierriko azentua nahi duela, besteak Bizkaiko kostaldeko ukitua... joder!", adierazi du badaezpada izena ezkutuan gorde

nahiago izan duen Miren Bego Irastortzabarrena (ui, barka...) irakasleak, "total, abenduaren 3 guztietako diskurtso berbera errepikatzeko, buruz ikasita behar lukete honezkero".

Bestalde, Beranduegik jakin duenez Gaztea irratsaioak helburu handinahia ezarri dio bere buruari abenduaren 3rako: erdarakada kuota %83tik %71ra jaistea, Jaungoikoa lagun. "Musika ona ipintzen hastea-eta beste baterako utziko dugu, dena ez dugu kolpe bakarrean egingo", esplikatu digu grazia handiko esatari batek.

Badator "Brown Monday": asteburuko ajearen kontrako produktuak merkeago erosteko eguna

Abendua ate joka dugu eta egun seinatu horiek kontuan hartuz Euskal Herriko farmaziek eskaintza berezia egingo dute datorren astelehenean. *Brown Monday* egunean ajeari aurre egiteko produktuak erdi prezioan eskuratzeko aukera izango da. Zenbait pertsona dagoeneko ilara egiten ari dira eskaintzaren egunean lehen postuan egote-ko. "Furgoneta gertu aparkatu dut, ea


kabitzen zaidan urte berri egunerako erosi nahi dudan ibuprofeno guztia", azaldu digu Kepa Sakolegi arbizuarrak. Deskontua duten produktuen artean daude hortzetako pasta guztiak ere, Euskal Herriko Botikarien Elkartearen arabera eguberrietako parranden biharamunean jendeak eduki dezakeen dragoi-hatsa osasun publikoko afera bihurtu baita.

SAREAN ARRANTZATUA

Berangoko itzultzaileak amaierarainoko daude jarrita



Ez dira pasako!



Kepa Junkeraren disko berria entzun ostean, Lagun txakurraren irudi hau erabili dute "Brown Monday" kanpainan.

Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin, maite-
mindu, jolastu, gozatu,
sentitu...

zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Galdetu zure bulegoan.



Abenduak 3.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus

Zatoz!

2018KO DURANGOKO AZOKAN



ARGIA BIZI BARATZEA txokora

Sarrera nagusiaren eskubi aldean
BARRENKALE 1-3



ZULOAN

Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena
URKO APAOLAZA

Urko Apaolaza egilea
bertan izango da egunero
abenduaren 6an eta 7an.

Prezioa: 14€ *

* Liburuaren aurkezpena
Donostiako Kaxilda
liburu-dendan egingo
da abenduaren 12an,
19:00etan.

LANDAREAK LANTZEN

Urte osoko gida-liburua
2018

JAKOBA ERREKONDO
ANTTON OLARIAGA

Jakoba Errekondo
bertan izango da egunero
landareen kontsultategian.

Prezioa: 12€

LIBURUAREN AURKEZPENA

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariagaren eskutik.

Ahotsenea gunean.
Abenduak 9, 18:00etan.

2018KO ILARGIAREN EGUTEGIA

Prezioa: 5€

EGUTEGIAREN AURKEZPENA

Usurbilgo Alkartasuna
Kooperatibaren eskutik
Pello Zabala eta Jakoba
Errekondorekin.

Areto nagusian.
Abenduak 8, 16:30ean.

2018KO ARGIA EGUTEGIA TAULA / EGUTEGIA

- Ba al zenekien...?
- Hizkuntza gutxiuak munduan
- Umorea
- Historiako emakumeak
- Euskal Herriko pegatak
- Mikroipuinak
- Barutzerako trikimailuak
- ARGIA n esanak

Egutegiaren prezioa: 9€
Taularen prezioa: 50€
(egutegia opari)

ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES KAMISETA

Kamiseta hau erosita,
La Directa herri
hedabideari eta
ARGIAri lagunduko
diezu Kataluniako
independentzia prozesua
zorrotz jarraitu dezaten.

Prezioa: 13€

ARGIA proiektua babestu eta kide egiteko aukera paregabea
INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

egin **ARGIAkoa!**

 **ARGIA**
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

ESKAERAK: azoka@argia.eus | tel. 943 37 15 45 | www.argia.eus/denda